


Elias Salaverria

Memoriala

Euskal Herriko artearen
historian istorioa

J. Javier **Fernández Altuna**
M^a Pinar **Matey Muñoz**



53

colección
Lankidetzan
bilduma



ELIAS SALAVERRIA MEMORIALAREN INGURUKO LANA:
LEHEN ORRIALDEA

Elias Salaverria Memoriala.
Euskal Herriko artearen historian barne dagoen istorioa

- **Izenburua:** Elias Salaverria Memoriala. Euskal Herriko artearen historian barne dagoen istorioa
- **Ingelesezko itzulpena:** Elias Salaverria Memorial. A story in the history of art in Euskal Herria
- **Egileak:**
 - Fernandez Altuna, Jose Javier
 - Matey Muñoz, M^a Pinar
- **Lanbide ezaupideak:**
 - Fernandez Altuna, Jose Javier: Bigarren Hezkuntzako irakaslea eta arte kritikaria. Helbidea: Indiano-ene Bidea, 9, 3-B, 20013 Donostia. Telefonoa: 943 321878. posta elektronikoa: jfernan2@euskalnet.net
 - Matey Muñoz, M^a Pinar: Zaharberritzailea eta dokumentalista. Helbidea: Indiano-ene Bidea, 9, 3-B, 20013 Donostia. Telefonoa: 943 321878. posta elektronikoa: pinarma@euskalnet.net
- **Lanaren amaiera data:** 2009-02-24



ELIAS SALAVERRIA MEMORIALAREN INGURUKO LANA:
LABURPENA ETA GILTZA-HITZAK

Elias Salaverria Memoriala.
Euskal Herriko artearen historian barne dagoen istorioa

Laburpena

Elias Salaverria Memoriala 1968an hasi eta 2000. urtera arte Lezo herrian antolatu zen pintura lehiaketa izan zen. Bertako margolari ospetsuaren omenez sortua, memorialaren asmoa herrian pintura bultzatzea eta aurkezten ziren artelan hoberenak saritzea izan zen. Ondorioz, memorialak nahiz eta leku zehatz bateko testuinguru artistikoa bildu, bertan saritutako artista eta lanen bitartez ere garaiko Euskal Herriko artearen ibilbide historikoarekin aldendu daiteke.

Giltza-Hitzak

Elias Salaverria
Memoriala
Lehiaketa
Pintura
Lezo



ELIAS SALAVERRIA MEMORIALAREN INGURUKO LANA

Elias Salaverria Memoriala.

Euskal Herriko artearen historian barne dagoen istorioa

Eskema

1. SARRERA: BEGIRADA ZEHATZETATIK IKUSPEGI OROKORRETARA
2. ELIAS SALAVERRIA ETA MEMORIALA: ARTISTA ETA ARTISTAK
3. MEMORIALAREN SORRERA ETA TESTUINGURUA: EUSKAL HERRIA 60. HAMARKADAN
4. MEMORIALAREN EZAUGARRIAK: OINARRIAK, EPAIMAHAIKAK ETA BESTELAKOAK
5. MEMORIALAREN IBILBIDEA: MEMORIALAREN GARAPENA ARTE GARAIKIDEAREN BILAKAERAN
6. MEMORIALEAN SARITUTAKO ARTISTAK: ARTISTA GARRANTZITSUENEN ETORRERA ARTISTIKOA
7. MEMORIALEAN SARITUTAKO LANAK: AURKITUTAKO LANEN KATALOGAZIOA
8. AMAIERA: IKUSPEGI OROKORRAK ETA BEGIRADA ZEHATZAK
9. ERANSKINAK
 - 9.1. Elias Salaverria Memoriala: Datu Basea Urtez urte
 - 9.2. Elias Salaverria Memoriala: Oinarrizko Datu Taula
 - 9.3. Elias Salaverria Memoriala: Irabazle Nagusien Datu Taula
 - 9.4. Elias Salaverria Memoriala: Irabazle Lezoarren Datu Taula
 - 9.5. Elias Salaverria Memoriala: Irabazle Gazteen Datu Taula
 - 9.6. Elias Salaverria Memoriala: Irabazle Haurren Datu Taula
 - 9.7. Elias Salaverria Memoriala: Dokumentuak
 - 9.8. Elias Salaverria Memoriala: Irudiak

Oharra: Elias Salaverria Memoriala: Argitalpenari begira oharrak



Lana

1. SARRERA: BEGIRADA ZEHATZETATIK IKUSPEGI OROKORRETARA

Beste ezaguera arlotan gertatzen den bezala, Euskal Herriko Artearen Historian oraindik hasi berriak gara. Ondorioz, orain arte burutu diren lan gehienak gaiari hurbilketak besterik ez dira izan eta gainera planteatuak ikuspegi orokor batetik. Arazo hau arte garaikidearen atalean oraindik konplexuagoa da, benetako historia bat egiteko perspektiba nahikorik ez baitugu. Baina hala ere, saiatu behar gara, eta Euskal Herriko Artearen Historiaren inguruko ikuspegi orokorrak eskaini behar ditugu gure ezaguera arloak aurrera jarraitu dezan.

Baina bide honetatik aurrera abiatzeko eta beharrezkoak diren ikuspegi orokorrak osatzeko begirada zehatzetatik abiatu behar gara, azken finean, Historia guztiak istorioz osaturik daude, eta Artearen Historian ere berdin gertatzen da, begirada zehatzak beharrezkoak dira ikuspegi orokorrak osatzeko. Baina tamalez, Euskal Herriko Artearen Historian, eta bereziki, arte garaikidearekiko atalean, istorio zehatz gutxi idatzi dira. Egia da hauetako askok ekintza xume eta soilak jasotzen dituztela, baina azkenean historia “handi” guztiak begirada eta istorio zehatz hauetatik jaiotzen dira, eta ondorioz, jaso, bildu eta idatzi beharra daude denborarekin iraganean bihurtzeaz gain ahaztu ere egin daitezkeelako. Guzti honen adibidetako bat da Elias Salaverria margolari lezoarraren omenez bere herrian antolatu zen memoriala edo oroitaldia. 1968an hasiera eman eta 2000. urtera arte iraun zuen memoriala honetan —XXXI edizio ospatuz— Elias Salaverria artistaren izenean urtero pintura lehiaketa bat antolatzen zen Lezo herrian Santakruzetako jaien ospakizunekin batera. Bertan artelan hobenei sariak ematen zitzaizkien —atal desberdinetan antolatuak— eta bide batez herrian artearekin eta kulturarekin lotutako ekitaldi bat egiten zen. Berez, Elias Salaverria Memoriala Lezo herriko Allerru elkarteak sortu zuen eta edizio gehienetan elkarte honetako kideak ardura lanak hartu zituzten, azkeneko urtetan zuzenean Lezoko Udalak antolakuntza lanak burutuz.

Elias Salaverria Memorialak ez zuen Euskal Herria mailako beste lehiaketan ospea eta oihartzuna lortu; berez, ikerketa hau burutzeko orduan hemerroteka lana egin behar izan genuenean memorialaren zenbait edizioen berri aurkitzea garaiko egunkari eta aldizkarietan zaila gertatu zaigu, eta bertan memorialaren inguruko aipamenak ere egiten zirenean hauek zehatzak eta laburrak izaten ziren, hainbat datu eman gabe utziz. Egia da ere, memorialaren asmoak eta helburuak hasiera hasieratik xumeak eta mugatuak izan zirela; aurrena Gipuzkoako artistei eta geroago Euskal Herria bertako artistei zuzenduta zegoen eta eskaintzen ziren sariak inoiz ez ziren handiak izan. Baina memorialaren baldintzak aproposak ziren —oinarriak askeak, zabalak eta, ondorioz, erakargarriak— eta urte askotan, gainera, batez ere hirurogeita hamar. hamarkadan, memoriala honen antzeko beste lehiaketarik ez ziren Euskal Herrian antolatu. Ez dugu ahaztu behar memorialaren hasierako urteak ez zirela batere errazak izan euskal artistentzat, garaiko erakunde publiko frankistek ez baitzuten inongo babesik eskaintzen ez artistei ez artelanei, eta garaiko arte merkatua ere ez zegoen batere garatua.

Horregatik, nahiz eta memorialaren oihartzuna murrizta izan, honelako ekimen bat garatzea garaiko artista askorentzat oso garrantzitsua izan zen. Berez, Elias Salaverria Memorialaren ezaugarri garrantzitsuenetako bat izan zen artista ezezagunen artean egun ezagunak eta ospetsuak diren beste batzuk aurkitzea, eta orokorrean, aniztasuna —zentzu guztietan, ikusiko dugun bezala— nagusi eta protagonista izatea.

Baina memoriala asmoz eta emaitzen aldetik apala izan bazen ere, bertan topo egin eta gauzatu ziren ezaugarri asko Euskal Herriko arte garaikidearen historiaren ezaugarri berak izan ziren, eta ondorioz, begirada zehatzak ere ikuspegi orokorrak antzematen eta aztertzen laguntzen digutela argi dago. Ikerketa honen helburua hori izan da, Elias Salaverria Memoriala ikertzeaz gain, Euskal Herriko Artearen Historian txertatu bata bestearen islaren antzera. Horregatik, orain hemen eskutan duzun ikerketa honen emaitza den liburu honetan ez duzu bakarrik memorialaren inguruko informazio zehatza aurkituko, baizik eta baita ere beharrezkoa den testuingurua memoriala hobekiago ulertzeko, eta Euskal Herriko arte garaikidearekiko konparaketa eta hausnarketa egiteko orduan memorialaren garrantzia hobekiago azpimarratzeko.

Horrela, zortzi atalez eta bederatzi eranskinez osatuta dagoen lan honen lehen sarrera honen ondoren, ikerketak Elias Salaverria artista lezoarraren ibilbide artistikoa berreskuratzen du, bere ezaugarriak eta garapen estilistikoa deskribatuz, eta nabarmenduz, bere ibilbide artistikoan beka,



dirulaguntzak eta lehiaketak izan zuten garrantzia, eta bera ere nola kezkatu zen artista gazteei laguntzeko orduan eta ezezagunen lanak plazaratzekoan.

Lanaren hirugarren atalean memorialaren sorreraz eta testuinguruaz arituko gara Euskal Herriko hirurogei. hamarkadako testuinguruan txertatuz, garai honetan Euskal Herriko artearen egoera azalduz eta aztertuz, eta ez bakarrik ikuspegi artistiko batetik, baizik eta baita beste ikuspegiak eta perspektibak ere kontutan hartuz.

Hurrengo atalean, laugarrenean, Elias Salaverria Memorialaren ezaugarriak aztertuko ditugu, nagusiki edizio desberdinetako oinarriak kontutan hartuz eta oinarri hauen garapena denboran zehar, baina baita beste elementu interesgarri batzuk ere, adibidez, antolakuntzan jasandako aldaketak, epaimahai kideen ezaugarriak, margolarien jatorria, artelanen oinarritzko ezaugarriak, erakusketa aretoen zerrenda eta afera, Lezo herrian erakusketen inguruan sortzen zen giroa, e.a.

Bosgarren atalean memorialaren ibilbide artistiko orokorra aztertuko dugu, hau da, memorialaren garapena eta bilakaera estiloaren aldetik garaiko arte garaikidearekin alderatuz. Horretarako, atal honetan, memorialean irabazle izan ziren artisten eta lanen ibilbide orokorra errepatatuko dugu, eta bide batez, konparatu Euskal Herrian arte garaikideak izan zuen bilakaerarekin eta garapenarekin, eta aztertu bi bideak zein nolako harremanak izan zituzten.

Seigarren eta zazpigarren ataletan memorialaren kategori nagusian saritutako artistak eta artelanak bilduko ditugu. Artistekiko, zerrenda emateaz gain, artista guztien oinarritzko datuak eskainiko ditugu, eta artista garrantzitsuenen etorrera artistikoa deskribatuko dugu. Artelanekiko, sarituak izan ziren eta Lezo herrian kokatuta dauden artelanen inguruko informazioa orokorra emango dugu, ezinbestekoak diren datuak bilduz artelanen inguruan.

Ondorioz, azken atala, zortzigarrena, amaiera gisa erabiliko dugu gaur egun ere memorialean eta lehiaketen garrantzia azpimarratzeko, oraindik artistak sari gisa hauen laguntza behar dutelako, eta ondorioz, Elias Salaverria Memorialaren berreskurapena planteatuko dugu, baina berriro ere begirada zehatz batetik, arte garaikidearen baldintzak eta testuinguru asko aldatu baitira 1968 geroztik, eta Memoriale berriak guzti hori kontutan hartzen saiatu behar duelako.

Amaiera ondoren, ikerketa borobiltzeko asmotan, liburuari bederatzi eranskin —ikerketa argitaratzen bada hamargarrena kendu beharko zaio, argitalpenaren inguruan baita, ondorioz, liburuak bederatzi eranskin izango ditu— txertatu dizkiogu. Lehenengoak memorialaren bilakaera urte urte jasotzen du, ikerketan lortu den informazio guztiarekin osatuta; bigarrenagoan, datu taula batean oinarritzko datuak laburbiltzen dira ondorengo gaien inguruan: urtea, erakusketa egunak, kategoriak, margolari kopurua, artelan kopurua, epaimahai kide kopurua eta erakusketa aretoa; hirugarrenagoan, kategoria nagusian irabazle suertatu ziren artisten eta artelanen inguruko informazioa eskaintzen da datu taula batean ondoko arlo hauetan banatuta: urtea, edizioa, irabazleen izenak, artelanen izenburuak, sariak, epaimahai kiden izenak eta artelanen kokapena; laugarrenagoan, baita datu taula batean ere, irabazle lezoarren oinarritzko datuak biltzen dira, hau da, urtea, edizioa, irabazleen izenak eta artelanen izenburuak; bosgarren eta seigarren eranskinetan irabazle gazteen eta hurren datu taulak aurkitzen dira, hemen ere oinarritzko datuak eskainiz: urtea, edizioa, irabazleen izenak eta artelanen izenburuak; zazpigarren eranskinetan Elias Salaverria Memorialaren inguruan lortu ahal izan diren dokumentu guztiak —zenbait urtetako oinarriak, edo partaide eta irabazleen zerrendekin osatutako diptikoak, adibidez— biltzen dira; zortzigarren eranskinetan, memorialean sariren bat lortu zuten eta Lezoko Udalako eraikinetan aurkitzen diren artelanen argazkiak bildu ditugu; bederatzigarren eranskinetan lana burutzeko orduan erabili dugun bibliografia zerrenda eskaintzen dugu; eta azkenik, hamargarren eranskinetan, ikerketaren inguruko zenbait aholku eta lan hau argitaratzeko orduan zenbait ohar egileen ikuspuntutik.

Sarrera honekin bukatzeko asmotan, ikerketa eta liburu honen egileak diren Jose Javier Fernandez Altuna eta M^a Pinar Matey Muñoz, eskerrak eman nahi dizkiegu, lehenengoz, Eusko Ikaskuntzari eta Lezoko Udalarari ikerketa burutzeko beka sortu eta emateagatik, eta ondorioz, ikerketa honen antolakuntza lanean aritu diren guztiei —Garazi, Leticia, Xanti eta, bereziki, Urkiri—, beraien sustapena gabe honelako lanak ez zirelako burutuko. Bigarrenagoz, eskerrak beroenak Elias Salaverria Memorialearekin harremana izan zuten herritar guztiak erakutsi duten begiruneagatik beraiei hurbildu garen bakoitzean informazioa edo datu bat eske —Rafael Bandres, Patxi Larrea, Marisol Labordeta, Esther Salaberria, e.a.—, eta bereziki, lezoar batek, Lander Zurutuza, Udal Liburutegiko arduradunak, eskainitako laguntzagatik, bera gabe nekez burutuko baikenuen lan hau, bertan



jasotzen diren datu eta hausnarketa asko bere parte hartzea gabe ezinezkoak izango baitziren. Guztiei bihotzez eskerrik asko.



2. ELIAS SALAVERRIA ETA MEMORIALAK: ARTISTA ETA ARTISTAK

Denborak aurrera egin duen neurrian Elias Salaverria (Lezo, 1883-Madril, 1952) margolari lezoarraren oroitzapena galdu egin da. Bere garaian artista ospetsua izan ondoren, bere heriotza ondotik, bai bere izena bai bere lana desagertzen joan dira. Berak sortutako irudi asko oraindik guztion oroimenean mantentzen badira ere —Lezoko Korpus prozesioa, San Ignazio, Elkano, Arantzazuko Amabirjina—, orokorrean, bere lana eta bere ibilbide artistikoa, eta zehazki, bere nortasuna eta bere izaera, iraganean geratu dira. Memorialaren oihartzun eskasa honetan ere lagundu du, eta berari eskainitako omenaldi, museo eta fundazio eza Elias Salaverria artista eta lanaren ezagutzan ere gutxi lagundu dute. Hala ere, Elias Salaverriaren egoera bera garaiko beste artisten artean ere ematen da, —Javier Ciga, margolari nafarraren kasuan, adibidez—, baina Salaverriaren kasuan bere garaian lortu zuen oihartzuna eta egun jasaten duen ahanzturaren arteko tartea beste artistetan baina handiagoa dela ezin da ukatu. Egoera honen arrazoi nagusia Salaverriaren estiloan datza, margotzeko orduan apustua egin zuen hizkuntzan dago, hau da, Salaverria margolari bikaina izan bazen ere ikuspegi desberdinetatik aztertuta —teknika, argia, kolorea, konposizioa, enkuadrea, gaien trataera—, beti figuratiboa izan zen, hots, errealista eta bere garaiko estilo eta arte korronte berriak ezagutu bazituen ere —inpresionismoa, postinpresionismoa, fauvismoa, expresionismoa, cubismoa, futurismoa eta abstrakzioa barne— ez zuen hauen alde inongo interesik azaldu, eta pintura figuratiboa eta errealistaren alde borrokatu zuen¹. Bere pintura irakasleen eta berarengan eragina izan zuten margolarien zerrenda aztertzen badugu —Juan Martinez eta Alejandro Irureta Donostian, bertako Arte eta Lanbide Eskolan, Alejandro Ferrant, Jose Moreno Carbonero eta Luis Menendez Pidal Madrilen, Arte Ederretako San Fernando Akademian, eta Parisera eginiko bidaietan bere interesa piztu zuen pintura Lucien Simon eta Henry Martin eginikoa izan zen, eta gehienez margolari errealista frantsesen lanak, Gustave Courbet, Jean-François Millet eta Honoré Daumirrek, baina bakarrik zenbait elementu— ohartuko gara Elias Salaverria ez zuela iraultzailea izan nahi, berak berrikuntzak ez zituela gustukoak, eta nahi izanez gero garaiko

¹ 1944ean Madrilgo Arte Ederretako San Fernando Akademian sarrerako hitzaldia irakurtzen duenean, Historiako pinturaren gorapena egiten du, eta pintura figuratiboa eta errealista defendatzen du, gogor kritikatuaz museotan nola pintura mota hau baztertzen ari ziren: “Una vez más se encuentra un hombre, elegido para ocupar un puesto en una asamblea ilustre, ante el embarazo de tener agotadas por sus predecesores y compañeros las frases de normal gratitud que el corazón y el tradicional protocolo imponen al recién venido. Todo lo que supone para un artista el llegar a este cenáculo de los consagrados, ha sido dicho ya de todas las maneras y muchas veces de insuperable modo. Por fortuna, la gratitud no requiere demasiada retórica para encontrar su adecuada expresión (...). Mi vida, escrita está en mis lienzos, no sé si con buena o mala fortuna, pero estoy seguro que con absoluta honradez. Ningún interés, ningún prejuicio, ningún otro afán que el de pintar, por el puro amor de hacerlo han movido jamás mis pinceles y mis afanes (...). Cuando los directores de Museo retiraban de sus salas los grandes lienzos históricos, en realidad servían, con pedantería infantil, a una moda efímera y puramente intelectual. Estamos todavía dentro de la época de la reacción de los críticos y artistas contra los cuadros de Historia. (...) El tiempo convierte en historia el instante que pasa, y un tipo actual, una escena contemporánea los convertirán en “historia” los años, si ha cuajado en ellos la belleza artística. El arte es libre y el artista puede desenvolver sus facultades ahondando lo mismo en la mitología griega que en el espectáculo del vivir cotidiano. (...) Las apreciaciones personales son respetables en la crítica, pero son funestas en el cuidado, ordenación y distribución de las obras de arte de los Museos. (...) ¡Matar al cuadro de Historia! Criminal intento. La Historia, luz y guía del presente, nos conduce y nos gobierna. Sin que lo queramos, nos movemos obedeciendo a un destino trazado por nuestra Historia y del que es imposible evadirse. Nuestra conducta así viene predestinada por nuestros antepasados. Y porque estamos enlazados a ellos en cuerpo y alma los amamos, reverenciamos y ensalzamos. (...) Hay que tener el espíritu de comprensión, de serenidad y de justicia de los maestros, para los cuales no había nada deleznable si era bello. Recuerdo a este respecto que, siendo yo muchacho, decía el gran pintor Pradilla, con humildad en una reunión del Círculo de Bellas Artes: “No hay que despreciar ni un aleluya. En todo hay algo que aprender”. Se dirigía a los artistas jóvenes que censuraban con menosprecio sus obras, alardeando de independencia y personalidad y blasonando de haber roto todo parentesco espiritual con los vituperados maestros. (...) A los artistas jóvenes hoy ya viejos, como a los artistas jóvenes de hoy, llenos de audacia acometedora, de desplantes y menosprecios de los maestros, yo les recordaría aquella sentencia que se lee en la puerta del cementerio de un pueblecito guipuzcoano: “Laister esango da zuengatik, guregatik esaten dezutena: Il ziran!”. SALAVERRIA, Elias: *El cuadro de Historia*. Madril: Academia de San Fernando, 1944.



abangoardietako artista asko bezala margotzeko aukera eta gaitasunak bazituen ere², ez zuen izan nahi, muzin eginez aukera honi. Gainera errealista pintura erabiltzea bere pinturarekiko ez da guztiz zuzena, errealitatek abiatzen bazan ere, bere margolanetan asmakizunak toki handia baitu.

Hala ere, Salaverria bere estiloan jardun ziren beste margolari asko bezala, ez zen inondik inora margolari figuratiboa edo errealista hutsa izan; berez, Salaverriaren artelanak arretaz aztertzen baditugu eta eskatzen diguten denbora eskaintzen badiegu, ohartuko gara bere margoak sekulako lana eta prestakuntza maila daramatela, eta ez bakarrik ikuspegi tekniko batetik —pintzelada, kolorea, argia—, baizik eta baita ere konposizioa, enkuadrea eta gaiaren trataeraren aldetik. “Lezoko Korpuseko prozesioa”, “San Ignazio” edo “Elkano” artelanak ikusi baino begiratzen baditugu, ohartuko gara irudi errealista eta figuratiboak diren horien atzealdean hausnarketa handiak gordetzen direla, eta sekulako lana erabakiak hartzeko orduan helburu zehatz batzuetara heltzeko asmoarekin. Azken finean, ez dugu ahaztu behar, batez ere XX. mendeko lehen hamarkadetako lanetan, Elias Salaverria Lezoko familia xume baten kidea izan zela, eta berarentzat pintura afizioa eta grina izatearekin batera ofizioa eta ogibidea izan zirela, eta ez bakarrik berarentzat baizik eta bere inguruko beste kide askorentzat ere. Horregatik, margolari baten lana aztertzeko orduan guzti hau kontutan hartu behar da, nahiz eta azkenean —eta horrela izan behar da— bere lana geratu, bere margoak, eta ikuspegi honetatik, zalantzarik gabe, Salaverria margolari bikaina da, aurreko beste garaietako maisuen parekoa, eta Euskal Herriko Artearen Historian bere estiloan izan dugun hobenetakoa.

Baina hasieran aipatu dugun bezala, Elias Salaverriaren ibilbide artistikoan bekak eta aurkeztu zen lehiaketetan irabazitako sariak ezinbestekoak izan ziren. Bere jatorri xumeak kontutan hartuta, dirulaguntza hauek gabe ez dugu zalantzarik egin behar Salaverriak ezin izango zuela bere afizioa lanbidean bihurtu. Aurrena Elias Salaverria gaztea 1897an Kubaseko Markesak Donostiara Arte eta Lanbide Eskolan ikasketak egitera bidaliz, eta ondoren, markesa hil ondoren, bere alargunak 1899an Madrilera eramanez Arte Ederretako San Fernando Akademiara ikastera, hauen laguntza gabe Elias Salaverria gazteak ezin izango zuen ezinbestekoak zituen ikasketak jaso eta ordaindu bere ibilbide artistikoari hasiera emateko.

Ondoren, 1903 eta 1906 bitartean, Gipuzkoako Aldunditik pentsio bat jaso zuen, 1.500 pezeta urtean izanik; pentsio hau jasotzeko Rogelio Gordon eta Alejandro Irureta margolari donostiarrak prestatutako azterketa gainditu behar izan zuen lehenengo urtean, eta beste bi urtetan Gipuzkoako Aldundiari eskaerak luzatuz eta Madrilen egindako lanak aurkeztuz dirulaguntzak berriro jasotzea lortu zuen. Garai honetan Gipuzkoako Aldundiarekin sortuko duen harremana estua ezinbeste izango da bere ibilbide artistikoan. Honen seinale eta adibidea da 1906an pentsioa amaitzen denean —gehienezko epea hiru urtekoa zen— Gipuzkoako Aldundiak Elias Salaverria gazteari artelan bat erosten diola³ 1.500 pezeta ordainduz, margolari lezoarrak bere formakuntzarekin jarraitu zezan.

Hurrengo sei urtetan, Salaverriak ikasketak amaituak, Madrilen geratuko da bizitzen —Lezora udaran hurbiltzen zen— eta bertan antolatzen ziren lehiaketetara aurkeztu jarraituko du, bereziki Arte Ederretako Erakusketa Nazionalerara, lehiaketa honetan garaiko sari handienak eskaintzeaz gain, bai artistak bai artelanak Espainia mailako ospea jasotzen baitzuten. Horrela eskuratuko du 1912an bere ibilbide artistikoan lortuko duen arrakastarik handienetakoa, urte honetan ospatu zen erakusketan lehen saria irabazten duenean “Lezoko Korpuseko prozesioa” margolanari esker. Garaipen honen ondoren jasotako zorion gutunen artean, Elias Salaverriarentzako garrantzitsuenak Gipuzkoako Aldundiak igortzen diona izango da, bertan pentsio berri bat eskainiko baitio bi urtetarako margolari lezoarrari, urte bakoitzean 5.000 pezeta jasoz; gainera, hurrengo urtean, 1913an Gipuzkoako Aldundiak Erromara bidai bat ordainduko dio bertan Espainiako Arte Ederretako Eskolan ikasketak berriak jasotzeko.

1914ean Gipuzkoako Aldundiak Elias Salaverriari pentsioa berrituko dio beste bi urtez —oraingoan ere gehieneko epera helduz— eta epe berri honetan Gipuzkoako Aldundia eta Elias Salaverriaren arteko harremana bikainaren seinale gisa, lezoarrak erakusketa bat antolatuko du 1915ean Donostian Arte Ederretako Jauregian Donostiako Orfeoia zuen aretoan, Gipuzkoako

² Elias Salaverriak eginiko zirriborroetan argi ikusten da berak nahi izanez gero teknika aske eta solte baten bitartez margotzeko gaitasuna bazuela; adibidez, Elkanoren omenez margotu zuen koadroaren zirriborroetan bertako bai formak bai argiak pintzelada bakar eta azkarrez eginak daude.

³ Artelana “Tu primero” izan zen; artelan honekin Elias Salaverria gazteak 1906an Madrilgo Arte Ederretako Erakusketa Nazionalen hirugarren saria lortu zuen.



Aldundiari eskerrak emateko asmotan eskainitako laguntza guztiagatik. Baina harremana ona eta berezia oraingoan ere ez da 1916ean pentsioaren amaierarekin bukatuko, baizik era urte berean Gipuzkoako Aldundiak San Ignazioren erretratu bat eskatuko dio. Hiru urte beranduago, Salaverria bera izango da Fermin Calbeton diputatuaren erretratu Gipuzkoako Aldundiari oparitzen diona, berriro ere, erakundeak eskainitako laguntzagatik eskerrak emateko asmotan.

Horrela gauzak, 1920an Elias Salaverria Gipuzkoako Aldundiaren aholkulari artistikoan bihurtuko da, eta Gipuzkoako Aldundiari emango dion lehenengotako aholkua izango da —Vicente Laffite eta Sebastian Caminorekin batera— artista gazteei laguntzeko asmotan pentsioen sistema baztertzea, eta artista gazteei bereziki zuzendutako lehiaketa bat bultzatzea. Lehenengo aldiz 1920ean antolatuko da, eta lehen epaimahaian Elias Salaverria bera egongo da honako emaitza hauekin: pinturan lehen saria Antonio Marti y Alonsorentzat, eta bigarrena Gaspar Montes Iturriotzentzat; eta eskulturaren, lehen saria Julio Beobidientzat. Bi urte beranduago, 1922an, berriro epaimahaian aurkitzen dugu, eta lehiaketaren hirugarren edizioan emaitzak honako hauek izan ziren: pinturan lehen saria Mauricio Flores Kaperotxipirentzat, eta bigarrena Carlos Landirentzat; eta eskulturaren, lehen saria, berriro ere, Julio Beobidientzat. Gipuzkoako artista gazteen lehiaketako epaimahaian parte hartuko duen azken urtea 1935 izan zen, honako emaitza hauekin: pinturan lehen saria Luis Alvarez Martinezentzat, eta bigarren saria Antonio Valverderentzat; eta eskulturaren, lehen saria Ismael Bengoechearentzat.

Lehiaketa honen epaimahaietako kide izateaz gain, beste lehiaketako epaimahai kide ere izan zen; adibidez, Hondarribiko udalak 1925ean irailean antolatutako jaietarako kartelen epaimahaian egon zen, eta urte berean Irungo udalak antolatutako argazki lehiaketa batean bertako epaimahaiaren kide ere izan zen. Gainera, 1943an eta 1945ean Madrilgo Arte Ederretako Erakusketa Nazionalan antolatzaile batzordetan egon zen eta epaimahaiaren kide ere izan zen.

Datu guzti hauek nahikoak ez badira erakusteko zein nolako harremana estua izan zuen Elias Salaberriak bekak, pentsioak, lehiaketak eta dirulaguntzekin —bai jasoz, baina baita ere parte hartuz eta bultzatuz—, azkeneko ikerketak⁴ erakutsi digute beste artista batzuetan ere eragina izan zuela, adibidez, Carmen Rodríguez de Legísima margolari galiziarrek bere lehen erakusketa Madrilen egin zuen Macarron Aretoan Salaverriak bultzatuta⁵.

Ondorioz, Elias Salaverria artistaren omenez Memoriala antolatzen asmatu zutenak —Allerru elkarteko kideak— margolari lezoarraren oroimena berreskuratzeaz gain, eta bide batez, ekintza kultural bat herrian bultzatzearekin batera, Elias Salaverria berak bere bizitzan zehar izan zuen kezka handienetako batekin bat egin zuten, hau da, beka, lehiaketa eta dirulaguntzen garrantzia azpimarratu artistentzat, eta bereziki, artista gazteentzat, arte munduan hasi berriak direnentzat. Horregatik Memoriala baten antolakuntza Elias Salaverriari egin zitzaiokeen omenaldi zintzoenetakoa zen.

⁴ Urkiri Salaberriak bere birbilobak eginikoak, bera baita azkeneko urtetan Elias Salaverriaren izena eta lana berreskuratzen eta goraiatzaren saiatzen ari dena.

⁵ Carmen Rodríguez de Legísima (Lousada, Ourense, 1896-Vigo, 1980) margolari galiziarren inguruko informazioa begiratzeko: PABLOS, Francisco: *Plástica Gallega*. Vigo: Caixavigo, 1981 eta PABLOS, Francisco: *Carmen de Legísima. Exposición monográfica*. Vigo: Caixavigo, 1985.



3. MEMORIALAREN SORRERA ETA TESTUINGURUA: EUSKAL HERRIA HIRUROGEI. HAMARKADAN

Memorialaren sorrera, ezaugarriak eta ibilbidea hobekiago ulertzeko bere testuinguruan txertatu behar dugu, hau da, Euskal Herria hirurogei. hamarkadan. Garai honetan aurreko bi hamarkadako garaiekin alderatu ezkerko egoerak hobera egin bazuen ere, nahiko argi zegoen garaiko oinarritzko ezaugarria Frankoren diktadurak ezarritako egoera zela, hots, askatasuna murriztuta, baldintza ekonomikoak azpigaratuak eta, orokorrean, erakunde publikoen aldetik inongo asmorik ez ongizate gizarte bat eraikitzeko.

Arlo orokorretan —politika, ekonomia eta gizartea— egoera penagarria bazen, kultura esparruan egoera ez zen hobeagoa. Lehenengo hamarkadan berezko kultura atzerakoia bat sortzen saiatu ondoren —bat egin nahian Espainiako Inperio garaiarekin— bigarren hamarkadatik aurrera, erregimen frankistak ez zuen kulturarekiko kezka handirik erakutsi, baina diktaduraren aurka egon zitekeen guztia saihesten eta debekatzen saiatu zen. Ondorioz, jarduera kulturalak, eta bereziki artistikoak nekez garatzen ziren, sekulako zailtasunen artean, eta beti zentsuraren debekuairen mehatxupean. Gainera, erakunde publikoen laguntza faltaz gain, gizarte bera gai hauetan, bestetan bezala, hezitu gabe zegoen, eta ondorioz, orokorrean, gustu artistikoa oso atzerakoia zen. Sormen artistikoarentzat baldintza txarrak borobiltzearen, kontutan hartu behar dugu ere, erakusketa lekuak gutxi zeundetela, eta dirulaguntzak oraindik eskasagoak zirela.

Egoera tamalgarri honetan, hirurogei. hamarkadaren hasiera oso garrantzitsua izan zen. Egoera politikoak ez bazuen aldaketarik izan ere, baldintza ekonomikoak nabarmen hobera egin zuten —industria, turismoa eta emigrazioari esker— eta ondorioz, gizartearen ongizate egoera ere bai, eta orokorrean kulturarekiko, eta bereziki, artearekiko kezka nagusitu zen. Ezaugarri berri guzti hauek bereziki, gainera, Euskal Herrian garatu ziren, gure lurraldean industriaren garapena sekulako izanik eta honek ekarritako beste ondorio eta onura guztiak ere. Testuinguru honetan, gure lurraldean kulturarekiko kezka ere zabaldu zen, eta hamarkada honetan adierazpen kulturalak berriak eta berritzaileak aurkitzen hasiko gara.

Artearen esparruan, hala ere, aldaketak eta berrikuntzak oso pixkanaka etorriko dira, arlo honetan bereziki giro orokorra nahiko atzerakoia baitzen eta bai pinturan eta eskulturan bai arkitekturan aurreko hamarkadetakako estiloak eta joerak mantentzen baitziren. Hala ere, hau giro orokorra izanik, salbuespenak ere hasiak ziren azaltzen. Aurreko hamarkadan Arantzazuko Basilika altxatzeko aitzakia hartuta, Euskal Herriko artista garaikide talde batek —Jorge Oteiza, Eduardo Chillida, Nestor Basterretxea eta Agustin Ibarrola, besteen artean— hasiak ziren beraien garaiko abangoardia berritzaileekin bat egiten baina berezko euskal nortasuna galdu gabe. Ekuazio hau —beste lurraldetan ere garai berean eman zena, adibidez Hegoamerikan—, modu berezian eta eraginkorrean Jorge Oteizaren lanean gauzatu zen, eta bidean zartako asko jaso bazituen ere —Arantzazuko bere apostoluak bide bazter batean egongo dira fatxadan jarri gabe 1968 arte—, baita sariak eta txaloak ere jaso zituen, 1957an Sao Paoloko Eskulturako Bienalean lortutako sari nagusia bezala. Egoera hauek, beste batzuekin batera —Dau al Set artista garaikideen taldearen jarduera Katalunian eta El Paso Madrilen— erregimen frankistaren iritzia aldatu ez bazuten ere —erregimena soilik txaloak jasotzen saiatu zen eta ahal zuen neurrian egoera bere alde erabiltzen frankismoaren irudia nazioarteko testuinguruan hobetzeko, baina inola ere ez arte garaikidean sinesten zutelako— beste artisten artean eta gizartean eragina izaten hasi ziren.

Ondorioz, hirurogei. hamarkada eta bereziki hamarkadaren bigarren zatia garaia oso interesgarria izan zen Euskal Herriko artearen eremuan, bereziki 1965. urtea geroztik. Berez, urte hori arte Euskal Herriko arte eremuan, eta zehazki Gipuzkoako lurraldean, soilik Gabonetako Pintura Lehiaketa antolatzen zen⁶, eta ondorioz, lehiaketa honetatik kanpo giro artistikoa oso pobrea zen.

⁶ Aranaz-Darras Arte Aretoak antolatuta, Gabonetako Pintura Lehiaketa hau 1950 eta 1965 urteen artean egin zen. Gipuzkoako lurraldeari mugatuta abenduan antolatzen zen, eta hasieratik asmoa bikoitza izan zuen: alde batetik, Donostiako San Telmo Museorako artelan garaikideak bildu, eta bestetik, hirian arte garaikidearekiko kezka eta giro artistikoa birstortu. Orokorrean lehiaketa honetan arte estilo ohikoenak arrakasta izaten zuten, baina belaunaldi gazteentzako eta berritzaileentzako ere garrantzitsua izan zen, askotan beraien lana erakusteko aukera izan baitzuten. Lehiaketa honetan urte erabakigarria 1961ekoa izan zen, urte honetako lehiaketan lehen aldiz irabazleak —M^a Paz Jiménezek eta Amable Ariasek— artelan abstraktuekin sari nagusiak irabazi baitzituzten. Azken bi



Baina urte honetatik aurrera gauzak aldatzen hasi ziren eta adibidez, behin Gabonetako Pintura Lehiaketa amaituta, Donostiako Udalak Tomas Hernandez Mendizabal margolariaren laguntzarekin⁷ Euskal Pinturaren Sari Nagusia sortu zuen, lehen aldiz garai honetan aukera emanez Euskal Herria osoko margolariei bere burua aurkeztea eta sari garrantzitsuak eskainiz. Sari honetan, 1972ra arte iraungo zuena, antolatutako sei edizioetan —1969an eta 1970ean ez zen saririk antolatu— belaunaldi eta estilo nahasketa handia eman zen garaia oso ongi islatzen duena⁸. Azken finean, Euskal Herriko artea oraindik Europako testuingurutik urrun aurkitzen bazen ere, haize berriak helduak ziren, eta haize berrien eta zaharren arteko borroka ere bai pintura figuratiboaren eta pintura abstraktuaren arteko borrokan islatu zen. Horrela, margolarien gehiengoak haize zaharren esanetara lana egiten zuten bitartean, erakunde publikoen eta gizartearen gehiengoaren onespina jasoz, belaunaldi gazteetako kide batzuk artea egiteko modu berrien aldeko apustua egiten zuten. Oraingoan ere, belaunaldi berri hauek gidatzen Jorge Oteiza eskultore gipuzkoarra nabarmendu zen euskal arte berritzaile baten aldeko apustua eginez; horrela, 1966an Eduardo Chillida, Nestor Basterretxea, Remigio Mendiburu, Jose Luis Zumeta, Rafael Ruiz Balerdi, Jose Antonio Sistiaga eta Amable Ariasekin batera Gaur Taldea sortu zuten arte berritzaile horren alde lana egiteko asmotan⁹.

Baina haize berrien etorrera ez zen artista talde berri hauetara mugatu. Hirurogei. hamarkadaren bigarren zatian beste ekimen artistikoak eta kulturalak ere aurrera eramanez baitziren. Horrela, Gipuzkoako Artisten Elkarteak ere hamarkada honen amaieran bere gogoak eta ekimenak indarberritu zituen eta erakusketa berriak antolatzen hasi zen belaunaldi gazteagoei bertan parte hartzeko aukera emanez¹⁰. Gainera, komunikabideetan eta gizartean bertan ere arte garaikidearekiko sentsibilitatea eta harremana aldatzen ari zela argi zegoen; jarrera berri honen adibidetako bat izan zen Jose de Artechek idazleak 1968an *La Voz de España* egunkarian argitaratu zuen iritzi artikulua “Apostoles en la cuneta” izenburupean, bertan Artechek Arantzazuko Basilikan amaitu gabe geratu ziren lanak berreskuratzea eskatzen baitzuen¹¹. Honekin batera, arte lehiaketa berriak ere sortzen hasi ziren, nabarmenduz, 1969an Gipuzkoan emakume artistei bereziki zuzenduta sortuko dena¹², edo urte berean Donostian ere antolatuko den lehen Eskultura Bienala¹³; garairako, bi lehiaketa

edizioetan irabazleak, 1963an Alejandro Tapia eta 1965ean, azkenekoan, Jesus Morente eta Javier Arocena izan ziren.

⁷ Garai honetan Tomas Hernandez Mendizabalek Donostiako Udalarako lan egiten zuen Gazteei zuzendutako sailean arduradun bezala.

⁸ Sari honen lehenengo lau edizioetako emaitzak honako hauek izan ziren: 1965ean lehen saria Ramiro Arruek irabazi zuen, bigarrena Jose Graceneak eta hirugarrena Vicente Amezttoyek, eta aipamen bereziak Jose Luis Zumetak eta Carlos Bizcarrondok; 1966an lehen saria Luis Garcia Ochoak irabazi zuen, bigarrena Carmelo Ortiz de Elgeak eta hirugarrena Ricardo Tojak; 1967an lehen saria Jose Luis Zumetak lortu zuen, bigarrena Jose Aquerretak eta hirugarrena Carmelo Ortiz de Elgeak, eta aipamen bereziak Carlos Bizcarrondok, Vicente Amezttoyek eta Juan Mieggek; eta 1968an lehen saria Carmelo Ortiz de Elgeak lortu zuen, bigarrena Vicente Amezttoyek eta hirugarrena Carlos Sanzek, eta aipamen bereziak Amable Ariasek, Marta Cardenasek eta Paul Rambierrek.

⁹ Gaur Taldea Gipuzkoan sortu zen, baina euskal arte garaikide berri baten aldeko ekimena zabalagoa izan zen, eta horrela, Bizkaian Emen osatu zen eta Araban Orain taldeak; asmoa zen Nafarroan Danok eta geroago Iparraldean Baita osatzea, baina azken bi talde hauek ez ziren sortu 1972ko Iruñako Arte Topaketen ondoren egitasmoa desegin baitzen.

¹⁰ Asmo berri hauen adibidetako bat 1966ean bazkideen aldetik antolatutako erakusketa da. Bertan, aurreko belaunaldietako margolarien parte hartzeaz gain —Ascensio Martiarena, Antonio Valverde, Tomas Murua, M^a Paz Jimenez—, belaunaldi berrietako kideei ematen zitzaizkien aukera nabarmendu behar da: Javier Arocena, Carlos Bizcarrondo, Tomas Hernandez Mendizabal, Alejandro Tapia, Jose Luis Zumeta eta Carlos Sanz. Azken margolari honen parte hartzea oso esanguratsua da, bera Vicente Amezttoy, Andres Nagel, Jose Luis Llanos, Ramón Zuriarrain edo Marta Cardenasekin batera, azken belaunaldiaren ordezkaria baitzen.

¹¹ Azkenean, iritzi artikulua honi eta ondoren sortu zen giro aproposari esker, lanak berreskuratzen ziren eta horrela Jorge Oteizak bere apostoluak basilikaren fatxadari ipintzea lortu zuen.

¹² Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala eta *Unidad* egunkariak antolatuta, lehiaketa honen lehen irabazlea Marta Cardenas suertatu zen, Coro Rico bigarren postuan geratuz eta Carmen Calparsoro hirugarrena. Lehiaketa urte gutxitara amaitu zen.

¹³ Lehen Bienala honen irabazlea Ricardo Ugarte izan zen, eta egun lehiaketa honetan saritua izan zen lana Donostian dago ipinita Ehunurteurrenaren plazan, “Estela” izenburupean. Lehiaketa hau ere ez zuen urte gutxi batzuk besterik iraun.



garrantzitsu hauez gain beste ekimen xumeagoak baina baita esanguratsuak ere bai Donostian bai Gipuzkoako probintziaren zehar antolatzen hasiak ziren¹⁴.

Ekimen hauek beste batzuekin batera¹⁵ giro berri bat sortu zuten Euskal Herriko arte garaikidearekiko, eta bereziki, Gipuzkoako eremuan. Gainera 1968. urtea ere “Amalur” filmaren aurkezpenaren urtea izan zen —Nestor Basterretxea eta Fernando Larruquet, zuzenduta— edo “Ez dok amairu” musika taldearen garapen urteak, taldea 1966an sortu bazen ere eta 1972an desagertu, urte hauetan (1968-1970) antolatu baitzituen bere ekimen garrantzitsuenak. Ondorioz, nahiz eta Euskal Herriko testuinguru orokorra aproposena ez izan kultur ekintzak sortzeko eta aurrera eramateko Frankismoa bezalako erregimen batek suposatzen zuen zama neketsuagatik, hirurogei. hamarkadaren bukaeran giroa aldatzen ari zela nabarmentzen zen. Diktadurak bai joera berriei bai bertako tradizioa eta kulturari bizkarra ematen bazioten ere, belaunaldi berriak Europan sortzen ari ziren mugimendu kultural eta artistiko berritzaileekin bat egitez gain, Euskal Herria bertako berezko ezaugarriak berreskuratu nahi zituen, eta garai honetako artistek lan hori gogoz hartu zuten.

Hau izan zen, laburbilduz, Elias Salaverria Memoriala txertatu behar dugun garaia. Zaila, baldintza politikoak, ekonomikoak eta sozialak hoberenak ez zirelako, eta ekimen kulturalak sortzeko zailtasunak handiak zirelako, baina beste aldetik itxaropenezko garaia bat izan zen, guztia egiteko baitzegoen, eta susmo zabaldua zen gauzak eta garaiak aldatzen hasiak zirela. Ondorioz, Elias Salaverria Memorialaren asmoak hasiera batean xumeak izan baziren ere —gero, hurrengo atalean, aztertuko ditugun ezaugarriak kontutan hartuta—, bere sorrera Gipuzkoako eremuari txertatua oso garrantzitsua izan zen, artista gazte askorentzat bere lana erakusteko eta beharrezkoa zuten diru bat irabazteko aukera aproposa baitzen. Gainera beste herrietan ere antzeko beste ekimenekin hasiko badira ere urte hauetan¹⁶, Elias Salaverria Memorialaren ezaugarrietako bat izan zen hogeita hamahiru urteen zehar antolatu zela eta hogeita hamaika edizio ospatu zirela, mota honetako lehiaketan artean gehien iraun zuena izanik¹⁷. Horregatik, memorialaren azterketa egitea aukera paregabea da begirada zehatz batetik Euskal Herriko arte garaikidearen historia orokorra aztertzeko, bertan, ikerketaren zehar, agertu zaizkigun ezaugarri asko testuinguru orokorrigo batean txertatu daitezkeelako, eta bi ibilbideak —Historia handiarena, eta istorio txikiarena— uzartu, nahiko modu paraleloan abiatu baitziren. Nahiz eta hirurogeita hamar. hamarkadatik aurrera gauzak asko aldatuko diren Frankismoaren desagertzearekin eta testuinguru berri baten agertzearekin batera, eta neurri handi batean, kultur eta arte ekimenak aldaketa guzti hauek jasan beharko dituzte —krisi ekonomikoak, egoera politiko berriak, gizarlean sekulako aldaketak ordura arte ezagutu gabeko

¹⁴ 1968an Donostiako Turismo bulegoak hirian eraikitzen hari ziren eraikin berrien murruean margolari gazteen parte hartzea proposatuko du kalean eginiko margoekin. Ekimenaren bultzatzailea, oraingoan ere, Tomas Hernandez Mendizabal izan zen eta parte hartu zuten margolariak Carlos Sanz, Vicente Amezttoy eta Julian Ugarte. Urte berean, Zarautzen Julian Ugarte margolariak murruean gaineko lehen pintura lehiaketa antolatu zuen eta irabazlea Tomas Fernandez Mendizabal izan zen. Ekimen eta lehiaketa hauez gain, urte batzuk lehenago Gipuzkoako zenbait herritan beste ekimen artistiko batzuk abian jarrita zeundeten, adibidez, 1965ean Zarautzen jendaurreko margo sariketa bat, 1966an Irunen paisaiari eskainitako pintura lehiaketa eta 1967an Ordizian pintura eta eskulturaren inguruan beste lehiaketa bat. Ekimen guzti hauek denboran jarraipen handirik ez bazuten izan ere —gehienez lau urte inguru—, giro berri baten isla ziren, artea eta bereziki arte garaikidearekiko jarrera berri baten adierazle.

¹⁵ Eremu pribatuan ekimen gutxiago antolatu baziren ere, nabarmendu behar da ere urte hauetan Donostiako Barandiaran Arte Galeriak aurrera eramaten saiatu zen programazioa; Gaur Taldeko kideen eraginez —Jose Antonio Sistiagari esker, bereziki—, arte galeria honetan garairako ekimen ausartak antolatu ziren, olerki eta musika esperimentalak barne.

¹⁶ Batez ere Frankismoaren amaierarekin 1975ean, pintura lehiaketak eta erakusketak orokortu eta zabaldu egingo dira Euskal Herriko geografiaren zehar. Hala ere, kontutan hartu behar da, garai honetan, hirurogeita hamar. hamarkadatik aurrera lehiaketa hitza bera kontzeptu gisa krisian sartuko dela. Honen adibidetako bat da Barakaldon gertatuko dena; 1971. urtera arte pintura lehiaketak antolatzen egon ondoren, urte honetan lehiaketaren sistema alboratu eta soilik erakusketak antolatzeari ekin zioten. Erabaki honetan zenbait euskal artistek eragin handia izan zuten—Gaur, Emen eta Orain taldeetan murgildurik zeundetenak, bereziki— gehienak lehiaketa sistemaren aurka baitzeundeten.

¹⁷ Elias Salaverria Memorialarekin batera, Gipuzkoako Artista Gazteen lehiaketa aipatu eta nabarmendu behar da, guztira XLII edizio antolatu baitira, baina aldi desberdinetan, 1920ean hasiz eta egun arte.



abiaduran— arte munduak bere ibilbidearekin jarraituko du, aldaketa guzti hauek txertatuz eta islatuz. Horrela, Bilboko Arte Ederretako Fakultatearen sorrera, Gipuzkoako Artista Gazteei eskainitako lehiaketaren berreskuratzea, Eusko Jaurlaritzaren aldetik Gure Artea lehiaketa abian jartzea edo beste ekimen mota batzuk, printzipioz, xumeagoak baina baita Gipuzkoako eremuan oso garrantzitsuak ere, bai eremu publikoan —Donostiako San Telmo Museoak arte garaikideari eskainiko dion areto berezia bezala, edo Gipuzkoako Aldundiaren aldetik Arteleku proiektuari hasiera ematea—, nola pribatuan¹⁸, Euskal Herriko, eta bereziki Gipuzkoako panorama artistikoa guztiz aldatu eta baldintzatuko dute. Hala ere, Elias Salaverria Memorialak, bere gora beherekin parte hartzaileen aldetik eta antolamenduarekiko, aurrera egingo du eta amaieraraino elkartuko diren ezaugarri eta aldaketa berri guztiak islatzeko gaitasuna izango du, bai alderdi txarrak nola onak ere islatuz.

¹⁸ Laurogei. hamarkadaren hasieran Donostian bi arte galeria oso garrantzitsuak etorkizun baterako bere ibilbidea hasiko dute, Dieciséis aretoa Artzai Onaren plazan, eta Altxerri, izen bereko tabernaren gainean, Erregina Erregentearen kalean.



4. MEMORIALAREN EZAUGARRI OROKORRAK: OINARRIAK, EPAIMAHAIK ETAK BESTELAKOAK

Tankera honetako beste lehiaketetan gertatzen zen bezala, Elias Salaverria Memorialean ere edizio bakoitza ospatu baino lehenago, aurretik oinarri batzuk finkaturik egoten ziren. Oinarri edo arau hauek askotan urtez urte aldatzen baziren ere, ezaugarri nagusienak bere baitan mantendu ziren, modu honetan memorialak bere nortasun propioa garatuz hogeita hamahiru urtez antolatutako hogeita hamaika saiotan¹⁹.

Ezaugarri hauen artean, azpimarratu behar den lehenengoa da, pintura lehiaketa izanik, hasieratik, lehenengo urtetik, teknika, estiloa eta gaiarekiko hartu beharreko erabaki guztiak askeak zirela, hau da, ez zegoen mugarik, eta artista bakoitzak erabakitzen zuen nola eta zein motatako lana aurkezten zuen. Hala ere, hiru arlo hauen inguruan lehiaketan parte hartu zuten margolari gehienak komunezko ezaugarriak izan zituzten, eta askok teknikaren aldetik olio pinturan aurkezten zituzten lanak, estiloarekiko figuratibismoa eta errealismo joera nagusi izan ziren, eta azkenik, gaiarekiko, nabarmenki paisaia izan zen memorialean parte hartu zuten margolarien gustuko gaia. Lehen ezaugarri orokor hauek, hala ere, garaiei baldintzatuta egongo dira, orokorrean, urteak aurrera egin ahala, aniztasuna nagusituko baita, eta bai teknikan, estiloan edo gaitan denborak gure garaietara hurbiltzen diren neurrian teknika desberdin, gai diferente, eta batez ere, estilo berritzaileak aurkituko ditugu. Ondorioz, memorialarekin lotuta ezaugarri orokorren artean gehien aurkituko dugun hitza zalantzarik gabe aniztasuna izango da.

Aurkeztutako lanen kopuruaren aldetik, 1993ra arte margolari bakoitzak hiru artelan aurkezteko eskubidea zuen, baina urte horretatik aurrera eta memorialaren amaiera arte, artista bakoitza lan bakarra aurkezteko eskubidea izan zuen, ziurrenik, laurogeita hamar. Hamarkadaren hasieran parte hartzaileen kopurua nabarmenki gora egin baitzuen, eta memorialaren antolatzaileak inoiz erakusketa areto aproposa bat izan ez zutenek, kopurua murrizteko eta zegoen erakusketa areto tokiari moldatzeko asmotan, erabaki hau hartu zuten. Heldu zaizkigun datuen arabera²⁰, lehiaketako lehenengo hamabost urtetan (1968-1983), laurogei lanen inguru aurkeztu ziren edizio bakoitzean, salbuespena 1982. urtea izanik edizio honetan 132 artelan aurkeztu baitziren. 1984tik aurrera lanen kopurua nabarmen behera egin zuen, eta batzuetan besteko kopurua hirurogei lanen inguru geratu zen. Baina 1993an lanen kopurua berriro ikaragarri igo zen —guztira 141 artelan aurkeztu ziren—, eta horregatik hurrengo edizioari begira lehiaketan parte hartu zuen artista bakoitzak lan bakarra aurkezten uzten zitzaion.

Horrela gauzak, memorialean aurkeztutako artelanen kopuruaren inguruan, datu hauek lehiaketan aurkezten ziren margolari kopuruarekiko konparatzen baditugu, harremana antzeko da. Ondorioz, oraingoan ere, lehenengo hamar urtetan guztira lehiaketara hogeita hamar artista inguru aurkezten baziren ere, 1978tik aurrera kopurua berrogeira igotzen da —baina artelanen kopurua mantenduz, eta horrek esan nahi du artista gehiago egonik bakoitzak lan kopuru gutxiago aurkezten zitzutela—, salbuespena, orain ere, 1982. urtea izanik, urte horretan 60 artista aurkeztu baitziren Elias Salaverria Memorialera. Baina 1984tik aurrera parte hartzaileen kopurua behera egiten hasten da, aurkeztutako lanekin gertatzen zen bezala, eta batez besteko kopurua hogeita hamar artistetan

¹⁹ 1968 geroztik eta 2000. urtera arte, memorialeko urtez urte antolatu zen bi salbuespenekin, 1984. eta 1985. urteak. Bi urte hauetan, garaiko Lezoko Udala eta herriko elkartearen arteko desadostasunengatik ez zen herrian memorialarik antolatu.

²⁰ Ikerketa hau burutzeko orduan izan dugun arazo larriena datu bilketaren zailtasuna izan da, guretzako lehiaketa interesgarria eta esanguratsua izan bazen ere, bere garaian ez zuen ez garrantzia handia ez ospe esanguratsua lortu, eta ondorioz, memorialaren inguruko informazioa lortzea ez da batere erraza izan. Hemerroteka lana egiteko orduan, adibidez, garaiko egunkariak eta aldizkariak, memorialaren inguruan ez zuten aipamen berezirik egiten, eta gehienez kulturako orrietan edo Lezo eta Errenteriarri eskainitako kroniketan ohar moduan soilik azaltzen zen memorialaren berri eta bakarrik oinarritzko zenbait datu eskainiz, baina beste asko estaliz. Lan honen eranskinen atalean, lehen eranskinetan biltzea lortu ditugun oinarritzko datuak eskaintzen dira aurreko urtez urte, eta gero lehiaketan egon ziren kategori desberdinen arabera datu tauletan antolatuak. Baita ere, eranskinen artean, zazpigarrenean, dokumentuen atalean, 1973. urtean *La Voz de España* egunkariak edizio horretako memorialaren berri nola argitaratu zuen txertatu dugu, adierazgarria baita komunikabideek, eta batez ere memorialaren lehenengo bi hamarkadetan, zein nolako berriak argitaratzen zituzten lehiaketaren inguruan.



kokatuko da. 1993an aurkeztutako artisten kopurua 65era igoko da, baina harrigarriena 1995. urtea izango da, 98 margolari aurkeztuko baitira memorialera. Orduz geroztik, kopurua behera egin zuen eta azken bi urtetan 66 artista izan ziren memorialean aurkeztu zirenak.

Hala ere, gauza bat aurkeztutako artisten kopurua da eta beste bat kategoriak dira, lehiaketaren hasieratik bi kategori desberdin bereiztu baitziren, alde batetik helduak edo nagusiak deitutakoak, eta bestetik, gazteak. 1977tik aurrera memorialaren antolatzaileak gazteen artean bereizketa bikoitza egiten hasi ziren, desberdinez gazteak eta haurren artean; lehenengoak 16 eta 12 urteen artean kokatzen ziren, eta bigarrenak 12 urte baino gutxiago izan behar zituzten²¹. Ondorioz, aurkeztutako artelanen taldekatzearekin lotura estua izaten zuten sari banaketa; urte gehienetan helduentzako bi sari egoten ziren, lehenengoa eta bigarrena, eta gazte eta haurrentzako ere bai²². Salbuespena 1972tik aurrera helduen atalean egiten hasi ziren, lehenengo eta bigarren sariak gain, lezoarra margolari hoberenari ere sari bat ematen hasi baitziren. Hala ere, sari antolaketa hau ez zen batere finkoa eta iraunkorra izaten, urte batzuetan aipatutako sariak gain, epaimahai kidek ere sariren bat eman gabe uzteko aukera bazutelako²³, eta gainera, lezoar batek helduen sari nagusiren bat irabazten zuenean, herri mailakoa ezin zuen era berean jaso, soilik helduen saria, eta ondorioz, lezoarrarena banatu gabe geratzen zen²⁴. Sarien diru kantitatearekiko, hogeita hamahiru urtez lehiaketa antolatu zenez, ibilbidea eta garapena handia izan zuen; horrela, lehen edizioan, 1968an, helduen sari nagusia 8.000 pezetakoa izan bazen, azken zazpi urtetan sari nagusia 300.000 pezetakoa izatea iritsi zen. Beste sari garrantzitsuenak, helduen bigarrena eta herritar hoberenari eskainitakoa askoz txikiagoak ziren, batzutan nagusiarekiko bostena izanik, eta azken urtetan herena. Gazte eta haur sarituei diruaren ordezkariak ematen zitzaizkien, eta guztiei, helduak barne, plakak eta dominak irabazteagatik.

Irabazleekiko, helduen atalean, aipatu beharreko beste datu bat da artista irabazleak eta saritutako lanak memorialaren antolatzaileekin hartzen zuten konpromisoa eta harremana. Heldu eta bildu ahal izan ditugun lehiaketako oinarrien arabera, memorialean lehen saria jasotako artelanaren jabetzaren inguruan ez zen urte guztietan adostasunik egon. Horrela, lehenengo edizioetan artelana saritua artistarentzat izaten bazen ere²⁵, 1975tik aurrera oinarrietan azalduko da nagusien ataleko lehen mailako artelan saritua antolatzaileen eskuetara pasatzen zela, hau da, Allerru elkartera. Oinarri hau 1991an berriro aldatuko da eta hiru urtez arte lan sarituen jabeak berriro ere egileak izango dira. Azkenik, memorialaren antolakuntza lanak 1994tik aurrera Lezoko udalak hartzen dituztenean, berriro ere, eta lehiaketaren amaiera arte, lehen saria jasotako artelanaren jabetza antolatzaileena izango da, eta ondorioz, egun, azken zazpi urtetan sari nagusia jaso zuten artelanak Lezoko Udako eraikinetan aurki ditzakegu²⁶.

Baina Elias Salaverria Memorialean azken zazpi urtetako irabazle nagusiak, oinarrien arabera, beste bi eskubide jasotzen zituzten: hurrengo urtean Lezon banakako erakusketa bat antolatzea²⁷, alde aurretik antolatzaileekin ados jarriak, eta hurrengo oroitaldian epaimahai kide izateko aukera²⁸.

²¹ Lehiaketaren azken zazpi urtetan (1994-2000) Lezoko Udak memorialaren antolakuntzaren ardura hartzen duenean, haurren saria desagertuko da eta soilik gazte guztiei orokorrean zuzendutako kategoria mantenduko da. Erabaki honen arrazoa nagusia, ziurrenik, kategori honetan parte hartzaileen kopurua gero eta txikiagoa suertatzea izan zen.

²² Lehenengo bi sari nagusiez gain, kategori bakoitzean eta edizioa eta epaimahai kideen arabera hirugarren sariren bat, akzesitak edo aipamen bereziak ere banatzen ziren.

²³ 1983ko oroitaldian helduen sari nagusia eman gabe geratu zen.

²⁴ Salbuespena 1974an gertatu zen, helduen sari nagusia lezoar batek irabazi baitzuen, Jose Antonio Arrechek, eta lezoarraren saria Antonio Amia.

²⁵ Neurri honen atzean, ziurrenik, artisten parte hartze handiago bat, eta bereziki, margolari ospetsuen parte hartzea memorialean bilatzen zen. Horrela lehiaketako saria irabazteaz gain, artistak saritutako lanaren jabetza gordez artelana saltzeko aukera izaten baitzuten.

²⁶ Guztira, lehen saria jaso zuten hamabi artelan aurkitu dira Lezoko Udak herrian zehar dituen eraikinetan sakabanatuak; horietako zazpi azken urtetakoak dira, eta beste bost aurrekoak, memorialaren antolakuntza Allerru elkartearen eskuetan zegoenean. Ziurrenik, beste zortzi artelan inguru antolatzaileen jabetzapean geratu ziren baina egun oraindik ez dakigu beraien kokapena. Gai honen inguruan ikerketaren zazpigarren atala arduratzen da.

²⁷ Gai honen inguruan ez dugu informazioa biltzea lortu.

²⁸ Azken zazpi urtetan irabazleetako bost artista izan ziren epaimahai kide —Oscar Barreras, Iñaki Gracenea, Judas Arrieta, Gorka Eizagirre eta Iñaki Rodríguez—, hau da, lehenengoa eta azkenekoa



Hala ere, epaimahai kidekiko, memorialean irizpide ohikoena parte hartzaileekin harremana zuzena ez zuten kideak aukeratzea zen. Gordetako zerrendetan azaltzen zaizkigun izenen artean, gehienak arte munduarekin harremanetan zeundeten kideak izaten ziren, nabarmenduz arte kritikariak —Antonio Viglione, Jose Berruezo, Juan Maria Alvarez Emparanza, Edorta Kortadi edo Iñaki Moreno Ruiz de Eguino—, arte galerietako zuzendariak —Fernando Altube²⁹— eta batez ere artistak, aniztasuna nagusia izanik, mota guztietako artistak aurkitu badaitezke, esanguratsuenak eta ospetsuenak honako hauek izanik: Vicente Ameztoy, Julian Ugarte, Jose Luis Zumeta, Carlos Sanz, Ricardo Ugarte, Juan Luis Mendizabal, Jose Gracenea, Daniel Txopitea, Carlos Inda, Manu Muniategiandikoetxea, Jose Ramón Amondariz eta Iñaki Imaz. Orokorrean, ikerketan lehenago aipatu dugun bezala, eta bereziki hurrengo atalean azalduko dugunaren arabera, izen guzti hauek gustuz eta estiloz oso desberdinak baziren ere, nabarmendu behar da hein handi batean garaiko arte garaikide berritzaile baten aldeko apustua egingo dutela.

Memorialaren beste ezaugarrietako bat, parte hartu zuten margolarien jatorria izango da, gehienak gipuzkoarrak izango baitira. Berez, hasieran Elias Salaverria Memoriala pintore gipuzkoarrentzat bakarrik antolatzen bazen ere, urte gutxitan Euskal Autonomi Erkidegoko beste lurraldetara zabaldu zuten eta Frankismoaren amaierarekin batera Euskal Herria osora. Hala ere, oroitaldi desberdinetan parte hartu zuten margolarien gehiengoa gipuzkoarra izan zen, nabarmenduz, gainera, Gipuzkoako zonalde zehatz batean jatorria zuten artistek, hau da, Irunetik Zarautz bitartera dagoen lurralde eremua, bertan herri hauetako parte hartzaileak nabarmenduz kopuruaren aldetik: Lezo, Irun, Hondarribia, Oiartzun, Errenteria, Pasaia, Donostia, Usurbil, Orío eta Zarautz³⁰. Jatorriaren arabera argi dago memorialaren oihartzuna eskasa izan zela, baina eragina Euskal Herriko lurraldeko eremu txiki baten soilik izan bazuen ere, artearen historiaren perspektibatik ikuspegi orokorraren isla izan zela ez dago zalantzarik.

Irabazleekiko eta parte hartzaileekiko aipatu beharrezko azken kontua memorialean emakumeen parte hartzea txikia da. Hirugarren ediziorako, 1970ean, emakume baten izena —Marta Cardenas donostiarrak— aurkitzen badugu ere irabazle helduen atalean, memorialaren bilakaeran soilik kategori honetan beste hiru emakume aurkitzen ditugu³¹. Beste parte hartzaileen artean kopurua ez da handiagoa, eta nahiz eta urteak aurrera egin ahala emakumeen partaidetza handituko bada ere, portzentajetan ehuneko hamarrenera ere ez da helduko. Bitxikeri moduan aipatu, gazte eta haurren artean partaidetzaren portzentaia nabarmenki gora egiten zuela, datu adierazgarria eta esanguratsua kontutan hartzen badugu orain dela gutxi arte helduen eta profesionalen artean berdin gertatu dela, eskoletan eta fakultatetan lehenik bi sexuen arteko berdintasuna lortua bazegoen ere.

Ezaugarri orokorrekin jarraituz, aipatu beharra dago antolakuntza lanak Lezo herriko Allerru Kultur eta Kirol Elkarteak hartu zituela hasieratik³², eta 1994 arte luzatu ziren, urte honetan Lezoko Udala bihurtuko da antolatzailea memorialaren amaieraraino 2000. urtean. Aurretik Lezoko Udalak laguntzaile lanak eginak zituen memorialaren antolakuntzan Allerrurekin batera, eta urte askotan

izan ezik beste guztiak. Lehenago, soilik Angel Uranga, 1987ko irabazlea, eta Jesus Javier Unzu, 1991ko irabazlea, epaimahaiako kide izan ziren, lehenengoa 1988ko oroitaldian eta bigarrena 1993koan.

²⁹ Fernando Altube hirurogeita hamar. hamarkadan Donostiako El Pez izeneko arte galeriaren zuzendaria izan zen, eta bildu ditugun datuen arabera, memorialaren historian epaimahai kideen artean urte gehien —zazpi bat— lehiaketarekin harremana izan zuena izan zen. Aipatu ere, El Pez arte galerian Elias Salaverria Memorialean parte hartu zuten margolari asko beraien lana bertan erakutsi zutela.

³⁰ Gai honen inguruko informazioa osatzeko datu gutxi bildu ahal izan ditugu, soilik urte batzuetako margolarien jatorrizko herriak lortu ditugulako. Dokumentuei eskainitako eranskinean txertatu dugu.

³¹ 1975ean M^a Lourdes Kalanje, 1982an Marga Hernando eta 2000. urtean, azken edizioan, May Vazquez. Beste kategorietan emakumeen beste izenak badaude (ikus eranskinetan), baina proportzio txikian ere.

³² Lehenengo urtetan antolakuntza lanetan Gotzon Urretabizkaia, Gurutz Salaverria eta Ana Maria Artola egon ziren, azken bi hauek kultura arloko ordezkari gisa. Hauekin batera Allerru elkarteko beste kideek ere lehenengo urtetan lagundu zuten, nabarmenduz, Marisol Labordeta Bergan eta Esther Salaberria Kortabari. Lehen urte hauetan, Carlos Sanz artistak ere, Gipuzkoako Artista Elkartearen lehendakariak, antolatzaile laguntza handia eskaini zien epaimahaiarentzako kideak proposatuz eta artisten artean Memorialaren berri ematen.



memorialaren babesle lanak egiten aurrena Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipala eta gero Kutxa Fundazioa aurkitzen ditugu, bereziki zenbait urtetan argitaratutako diptikoa patrozinatuz³³.

Memorialaren datarekiko, bi urtetan ezik —1991 eta 1992— beste guztietan memoriale Lezo herriko Santakruzetako jaietan antolatzen zen. Orokorrean, margolarien lanak iraileko lehen astean hartzen ziren eta guztia prestatu ondoren —aretoa, artelaren erakusketa eta sariak— erakusketa jai nagusiaren bezperan —irailak 13— irekitzen zen eta jaiaren amaiera arte irekita egoten zen, lau bat egun. Bi urtez, 1991ean eta 1992an, Allerruko antolatzaileak erakusketa gabonetan egiten saiatu ziren, egun gehiagotan irekita izateko asmotan eta ikusle gehiago edukitzeko itxaropenarekin, baina erabakiak ez zuen arrakastarik izan, eta berez, 1991ko Santakruzetako Lezoko artista talde batek protesta moduan pintura erakusketa bat antolatu zuen³⁴. Azken finean, Lezoko herritar gehienek Elias Salaverria Memoriale Santakruzetako jai giroarekin lotzen zuten eta jaietako egunetan erakusketa ikustea gustukoa zuten, memorialak herriaren onespina eta neurri handi batean arrakasta izaten baitzuen, inguruan sortzen zen giroa benetan bitxia eta alaia izanik.

Memorialaren inguruko ezaugarrien atal honen hasieran aipatu dugun bezala, memorialaren ezaugarriarik nabarmenetakoak aniztasuna eta askatasuna izan ziren, eta ikuspegi horretatik, erakusketa areto berean artelan oso desberdinak topo egitea —batzuk figuratiboak besteak abstraktuak, batzuk pintura lanbidea zuten artistak eginak besteak soilik afizioz burutuak, batzuk ikusten zutena margotuz besteak barruan sentitzen zutena botaz—, benetan aberasgarria izaten zen. Ondorioz, memorialak herrian sortzen zuen giroa benetan nahasia zen hitzaren zentzu baikorrean, aipatu dugun bezala, gehienetan oso aberasgarria suertatzen zelako³⁵. Eta gehienetan ere artelanak erakusteko aretoak aproposenak ez baziren ere³⁶, eta epaimahaiaren iritzia eta erabakiak askotan polemikak sortzen bazituzten ere, giro orokorra primerakoa izaten zen.

³³ Ikerketa honetan hainbat diptiko biltzea lortu ditugu, bai oinarrien inguruan bai parte hartzaile eta irabazleen zerrendekin. Hauetako diptiko gehienak Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipala eta Kutxa Fundazioa babesturik. Diptiko hauek eta antzeko beste materialak Lezoko Udal Liburutegia eta bere arduraduna, Lander Zurutuzari esker lortu ditugu, eta lan honen zazpigarren eranskinean bildu ditugu.

³⁴ 1991ko erakusketaren izenburua “Lezokoak” izan zen eta bertan parte hartu zuten margolariak honako hauek izan ziren: Argiñe Carrera, Jesús Bernal, Abel Corchero, Xabier Picabea, Mikel Susperregi, Aitor del Teso, Andoni Treku eta Lander Zurutuza; erakusketa Andreone Kultur Etxean egin zen irailaren 10 eta 16 bitartean eta guztira 32 artelan aurkeztu zituzten. Lau urte beranduago, Alondegian, herriko artisten beste erakusketa bat antolatu zen Autobiaren aurka maiatzaren 10 eta 15 artean, bertan parte hartuz: Andoni Treku, Jes Bernal, Xabier Picabea, Abel Corchero, Lander Zurutuza, Xabier Olaziregi eta Jose Maria Perea.

³⁵ Memorialaren inguruko giroa Patxi Larrea eta Lander Zurutuzari esker ezagutzeko aukera izan dugu, beraiek urte askotan parte hartzaileak eta herri mailako sariaren irabazleak suertatu baitziren.

³⁶ Elias Salaverria Memorialean erabili ziren erakusketa aretoen inguruan ez zaigu informazio handirik heldu. Bildutako datuen arabera zazpi erakusketa leku desberdin erabili ziren, garrantzitsuenak izanik, Ikastolaren egoitza memorialaren lehen urtetan, hainbat lantegietako bulegoak, Alondegia, Andreone Kultur Etxea eta azken urtetan, Lezoko Herri eskola.



5. MEMORIALAREN IBILBIDEA: MEMORIALAREN GARAPENA ARTE GARAIKIDEAREN BILAKAERAN

Orokorrean, Elias Salaverria Memorialean garaipena lortu zuten artistak eta artelanak aztertzen baditugu, ondorioztatu ditzakegun lehen bi ezaugarriak honako hauek dira: lehenengoz nabarmendu, lehiaketan sari nagusia irabazi zuten margolarien eta lanen ibilbidea garaiko Euskal Herriko arte garaikidearen bilakaerarekin bat egiten zutela, eta bigarrenengoz, nagusiki, memorialean sarituak izan ziren estiloak garapen orokorrarekin bat egiten bazuten ere, Lezo herrian garaipena lortzen zuten margolarien hizkuntza artistikoa normalean orokorra baino zerbait klasikoagoa zen. Hau da, lehenengo edizioetan, zehazki lehenengoa Alejandro Tapiak irabazia 1968an, eta laugarrena Carlos Bizcarrondok 1971an, sari nagusiak lortu zituzten bi artistak Ur Taldekoak ziren³⁷, eta beraien hizkuntza artistikoa iraultzailea ez bazen ere, behintzat gure testuinguru artistikoan aurrerakoia zen, baina Ur Taldeko kideek hirurogei. hamarkadaren hasieratik estilo berean lanean ari ziren; edo hurrengo urtetan, 1976an eta 1978an Juan Azpeitiak bi alditan sari nagusiak lortzen dituenean, edo urte batzuk beranduago 1980ean eta 1984ean, bitan ere, Luis Marzalok lortzen dituenean, bi margolari gipuzkoarren estiloa errealismoa eta surrealismoa uztartuz, hirurogeita hamar. hamarkadaren hasieratik Vicente Ameztoyek, Carlos Sanzek, Andres Nagelek, Ramon Zuriarrainek edo Jose Luis Llanosek lantzen zuten bezala egiten zuten. Baina beste urte batzutan irabazle suertatu ziren artistak garairako bai ari zirela estilo artistiko berritzaileen aldeko apustuak egiten; horren adibideak dira 1970ean, hirugarren edizioan, Marta Cardenasek lortutako sari nagusia, lan figuratibo batekin baina ausarta garairako, edo beranduago 1989an Jesus Maria Cormanen artelana konplexua eta aberatsa, 1994ean Jose Maria Perearen ausardia, eta urte batzuk beranduago, lehiaketaren azken urtetan, garaileak nabarmenki gazteak izateaz gain, Bilboko Arte Ederretako Fakultatean litzentziatuak eta Artelekuko ikasleak izan zirenean³⁸.

Memorialaren ibilbidea aztertzen dugunean artista irabazleen eta artelan sarituen ezaugarriak aztertzeaz gain, badaude beste elementu interesgarriak aipatu beharrekoak lehiaketaren garapen orokorrarekiko. Horrela, memorialean artelan figuratiboen eta abstraktuen arteko lehia hasieratik planteatu bazen ere, argi dago denbora aurrera egin ahala abstraktuen presentzia handitu zela baina figuratiboak atzera egin gabe; ikerketaren hasieratik planteatu dugun bezala, orokorrean Elias Salaverria Memorialean menperatzen zuen gustua ez zen guztiz garaikidea, aurrerakoia eta ausarta, baina ezta ere atzerakoia, baizik eta bi sentsibilitateen arteko oreka nahasia, anitza eta, batez ere, interesgarria antzematen zen.

Estiloa edo hizkuntza artistikoen bilakaerarekin batera, beste bi elementu esanguratsu artelanen izenburuen garapena eta euskararen erabilpena izan ziren. Lehenengoarekiko, aipatu, urteen poderioz artelanei izenbururik ez jartzea hasieran artista bakar batzuen apustua izan bazen ere, azken urteetarako orokortu egin zela; hala ere, aipatu beharreko datua da 1977rako Juan Azpeitiak eta urte bete beranduago, 1978an, Iñaki Arzakek, helduen lehen sariak izenbururik gabeko artelanekin irabazi zituztela.

Bigarren elementu esanguratsua, eta neurri batean ere, garai berrien adierazle, euskararen erabilpena lehiaketan izan zen. Lehenengo urtetan euskarak artelanen izenburuetan presentzia soilik testimoniala izan zuen neurrian —zehazki, gazte eta haurren artelanen izenburuen zenbait hitzetan—, hirurogeita hamar. hamarkadaren erditik aurrera euskararen presentzia artelanen izenburuetan ohikoa bihurtu zen. Hala ere, detaile bat besterik ez bada ere, memorialaren historian helduen sari nagusian

³⁷ 1965ean sortua, Ur Taldeko kideak Javier Arocena, Carlos Bizcarrondo, Jose Gracenea eta Alejandro Tapia izan ziren. Beraien asmo nagusia zen elkartuak erakusketa gehiagotara aurkezteko aukera izan. Pintura figuratiboa egiten zuten, nagusiki paisaia generoa landuz, eta 1974. urtera arte elkarrekin talde bezala aritu ziren.

³⁸ 1996tik 2000. urtera arte memorialean bai garaipena lortu zuten artistak —Iñaki Gracenea, Judas Arrieta, Gorka Eizagirre eta Iñaki Rodríguez— bai epaimahaietako kide asko —Manu Muniategiandiakotxea, Jose Ramon Amondarain, Pello Alberdi, Pello Mitxelena edo Iñaki Imaz— garai honetan Artelekurekin harremana estua izan zuten bertako ikastaroetan eta tailerretan parte hartuz. Gehienak, zehazki, Txomin Badiola eta Angel Badosek Artelekun 1995ean eta 1996an eskainitako tailerretan parte hartu zuten.



suertatutako irabazle guztien artean soilik bi, Fernando Arenazak 1990ean eta Iñaki Graceneak 1996ean euskara erabili zuten bere artelanari izenburua ipintzeko orduan³⁹.

Baina ezaugarri banakakoak alde batera uzten baditugu, eta margolari irabazleen lanak aztertzen jartzen bagara, Elias Salaverria Memorialaren ibilbidean estiloarekiko hiru garai desberdin antzematen direla ohartuko gara. Lehenengoan, 1968an hasi eta 1984. urtera arte luzatuko litzatekeena, Lezoko lehiaketan estilo figuratiboa izan zen nagusi, baina errealitateari atxikituta egon gabe. Berez, lehen fase honen barnean bi azpi korronte edo tendentzia desberdin bereiztu ditzakegu; alde batetik, paisaia edo errealitateko elementu zehatza bat abiapuntutzat hartzen duten artistez osatuko luketen taldea dugu⁴⁰, eta bestetik, errealitatearen kanpoko ekintzak baztertu, eta barne begirada batean oinarrituko lireratekeenak aurkituko genituzke, bere artelanei ukitu fantastikoak edo surrealistikak izenekoak erantsiz⁴¹. Lehen fase honetan, ondorioz, errealitatea abiapuntua besterik ez da, eta estilo edo hizkuntza artistiko nagusia figurazioan errotuta jarraitzen badu ere, arte garaikidearen ezaugarri asko eranstean eta txertatzen ari direla antzematen da. Azken finean, garai honetan Euskal Herriko arte garaikidearen ibilbidea honelakoa izan zen, eta fase honetan gure artearen historian aurkitzen baditugu ere artista ausartak —Gaur Taldeko kideak, adibidez— eta batzuk iraultzaileak eta guzti —Esther Ferrer artista eta performance kontzeptuala donostiarraren kasuan—, ez da arruntena izango, baizik eta ohikoena eta zabalduena Elias Salaverria Memorialean aurkitzen ditugun margolariak izango dira, garairako nahiko aurreratuak baina puntako apustuak egin gabe.

Bigarren fasean, 1987tik 1993ra arte iraungo lukeena, ezaugarri nagusia nahasketa hitza da, baina terminoaren zentzu onean, fase motza bada ere lehenengoarekin konparatuz, aniztasuna nagusia baita. Bereiztu ditugun hiru fasetatik definitzen zailena hau da, oso urte gutxitan artelan oso desberdinak elkar topo egiten baitute; adibide esanguratsu gisa, aipatu eta nabarmendu, 1987an Angel Urangak irabazten duen bitartean hirurogei. hamarkadan kokatuko genukeen estiloa artistikoa erabiliz, bi urte beranduago, 1989an, Jose Maria Cormanek irabazten duela garairako artelan guztiz garaikide batekin, hau da, garaian puntan zeunden hizkuntza artistikoak erabiliz eta nahastuz. Hala ere, orokorrean, bigarren fase honetako irabazleak⁴² ez zuten apustu ausartirik erakutsi, eta ondorioz, gehienetan artelan figuratiboak baina ohikoak aurkitzen ditugu, hauetako batzuk garaian modan ipini zen espresionismo berriaren itzalean, baina berezko irakurketak egin gabe. Beste aldetik, aipatu beharra dago ere, orokorrean garai honetako urteak ez zirela batere errazak izan pinturarentzat eta margolarientzat, arte garaikidearen ibilbideak baztertzen zituela ematen baitzuen, eta estilo eta hizkuntza artistiko berriak beste adierazpen artistikoen bitartez —instalazioa, argazkia, bideoa— bakarrik heltzen zirela ematen zuen. Ondorioz, Elias Salaverria Memorialean nahasketa hitza nabarmentzea eta egoera hobekien definitzen zuen termino hau izatea hein handi batean ez da harrizkekoa, momentu honetan ere lehiaketa egoera orokorrago baten isla baitzen.

Hirugarren eta azken faseak, 1994ean hasi eta lehiaketaren amaiera arte iraungo duena, memorialaren antolakuntzan egondako aldaketekin bat egiten du, urte honetatik aurrera Allerru elkarteak antolakuntza lanak utziko baititu eta, ondorioz, Lezoko Udalak bere gain hartuko ditu. Ezaugarri hau, beste batzuekin batera —Donostiako Arteleku Zentroaren eragina, adibidez, atal honen hasieran aipatu dugun bezala— fase desberdin bat ekarriko du. Oraingoan, esan dezakegu, Elias Salaverria Memorialeko irabazleak⁴³ garairako Euskal Herriko arte garaikidean gertatzen zenarekin egunean zeundetela, eta horrela, estilo eta hizkuntza artistiko berritzaileak erabiliko dituzte. Bertan, figurazioa eta abstrakzioaren arteko lehia desagertu, eta irabazle suertatu ziren lanak beste

³⁹ Fernando Arenazak 1990ean helduen sari nagusia irabazi zuen “Beste bostgarren mendeurrena II” artelanarekin eta Iñaki Graceneak 1996ean “Paisaia” izeneko artelanarekin.

⁴⁰ Talde honetan honako margolari saritu hauek sartuko genituzke: Alejandro Tapia (1968), Tomas Hernandez Mendizábal (1969), Carlos Bizcarrondo (1971), Luis Astrain Anso (1972), Antonio Mateo Real (1973), Jose Antonio Arreche (1974), Maria Lourdes Kalonje (1975) eta Marga Hernando (1982).

⁴¹ Bigarren talde honetan ondorengo margolari saritu hauek bilduko genituzke: Marta Cardenas (1970), Juan Azpeitia (1976 eta 1978), Iñaki Arzak (1977), Pablo Donezar (1978) eta Luis Marzalo (1980 eta 1984).

⁴² Fase honetako beste irabazleak honako hauek izan ziren: Mikel Bergara (1988), Fernando Arenaza (1990), Jesus Javier Unzu (1991), Fernando Mikelarena (1992) eta Iñaki Zabala (1993).

⁴³ Hirugarren fase honetako irabazleak honako hauek izan ziren: Jose Maria Perea (1994), Oscar Barreras (1995), Iñaki Gracenea (1996), Judas Arrieta (1997), Gorka Eizagirre (1998), Iñaki Rodríguez (1999) eta May Vazquez (2000).



kezketan murgilduta zeundetela antzematen zen, eta nagusiki estiloren bat nabarmendu baino estilo anitzak konbinatzen ziren jatorri desberdinetatik hartuak. Garai honetan, Euskal Herriko arte garaikidean pinturak bere tokia eta nortasuna berreskuratzen hasten bada ere, argi dago norabide bakar bat ez dagoela baizik eta aukera desberdinak. Horrela, Jose Maria Perek abstrakzio askearen aldeko apustua egiten duen bitartean, Oscar Barrerak abstrakzioa eta figurazioa tartekatzen ditu; Iñaki Graceneak, bestalde, azken bide honetatik abiatuta irakurketa konplexuagoak eskaintzen ditu, bere paisaiei geometria eta ordenagailuen hizkuntza berriak gehituz; beste bide batetik abiatuz, Judas Arrieta abstrakzioa, adierazkortasuna eta komikiarekin jolasten du, izenburuan ere ukitu sinbolikoa eta ironikoa emanez; Gorka Eizagirrek, bestalde, minimalismoa eta abstrakzio geometrikoa berreskuratzen ditu pinturaren helburuez eta asmoez hausnarketa egiteko asmotan; eta bukatzeko, Iñaki Rodriguez Gorka Eizagirreraren bide beretik abiatzen da baina pop hizkuntza artistikoaren helburu berak berreskuratuz, eta azkenik, May Vazquezek, baita margolan espresiboen izpiritua berreskuratzen du ere bere artelanean aurrez eta galdezka begiratzen gaituen emakume baten irudiaren bitartez.

Azken irudi hau, memorialaren azkenekoa, metafora gisa ere erabili dezakegu, 2000. urtean garai eta erronka berrien aurrean memorialak desagertzea erabaki baitzuen. Hori gertatu arte, Elias Salaverria Memorialaren ibilbidea garai bakoitzarekiko hasieran atzerapenarekin hasi bazen ere, amaierarako memorialean sari nagusiak lortu zituzten artistak momentuko arte garaikidearen berri bazutela argi dago. Ikuspegi honetatik aztertuta, memorialaren azken urtetan arte garaikideak, eta bereziki, pinturak bizitu zuen nora eza eta memorialak ere jasan behar izan zuena antzekotasun handiak izan zituzten oraingoan ere.



6. MEMORIALAREN SARITUTAKO ARTISTAK: ARTISTA GARRANTZITSUENEN ETORRERA ARTISTIKOA

Ikerketa honen seigarren atalean Elias Salaverria Memorialean helduen sari nagusia irabazi zuten artista garrantzitsuenen etorrera artistikoa aztertu dugu. Orretarako, aurrena, irabazle suertatu ziren artista guztien oinarrizko datuak eskaintzen saiatuko gara⁴⁴, eta gero, Euskal Herriko arte garaikidearen historian nabarmendu diren artisten ezaugarriak, alde batetik, eta ibilbidea eta garapena, bestetik, behin lehiaketan saria jaso ondoren, emango dugu⁴⁵. Irabazleen zerrenda urtez urte aztertu dugu, aurrena memorialaren urtea eta edizioa paratuz, eta gero artistaren izena eta abizenak, leku eta jaiotza dataekin batera, lortu ahal izan dugunean.

- 1968. urtea. Igo edizioa. **Alejandro Tapia** (Aginaga, 1930): Alejandro Tapiak margolariak bi ezaugarri ditu, paisaiarekiko zaletasuna eta pintura figuratiboaren aldeko atxikimendua. Nahiz eta garai batzutan bere basoak abstraktu itxura hartu, beti nahiago izan du errealtatea abiapuntuz hartu bere artelanak egiteko orduan. Garai honetan bere koloreak oraindik ez zuten geroago lortuko duten argitasuna eta indarra baina, hala ere, bere garaiko beste margolarien ondoan biziagoak ziren. Alejandro Tapiak, Carlos Bizcarrondo, Jose Gracenea eta Javier Arocenarekin batera 1964 eta 1974 artean Ur Taldea osatu zuen; beraien asmoa Gaur Taldearenak baino askoz xumeagoak izan ziren, elkarrekin erakusketa gehiago antolatu eta, bide batez, paisaiaren ikuspegi pertsonalago bat defendatu nahi zuten, kutunagoa, bereziki Bidasoako Eskolatik bereiztuz.
- 1969. urtea. II. edizioa. **Tomás Hernández Mendizabal** (Tolosa, 1940): Tomas Hernandez Mendizabal bereziki kultura arloan ekintzak antolatzen eta ekimen hauetako kartel asko diseinatzen nabarmendu da. Bere pintura, bere karteekin batera, komunezko ezaugarriak dituzte, hau da, errealismoa eta figurazioaren aldeko joera, baina beti forma lauak eta kolore indartsuak nabarmenduz, eta bolumenei muzin eginez. Garai honetan bere pintura kartelgintzako tekniken eragina handia jasotzen zuen, eta ondorioz, kartelen diseinua baldintzatzen dituzten elementuak ezaugarritzat hartzen zituen. Geroztik, bere ibilbidea nahiko berdintsua izan da, zenbait aldatetekin koloreekiko eta trazuarekiko —gero eta askeagoa, neurri handi batean— baina bere berezko ezaugarriak mantenduz.
- 1970. urtea. III. edizioa. **Marta Cardenas** (Donostia, 1940): Marta Cardenasek garai honetan oraindik bere hizkuntza, estiloa eta nortasun artistikoa aurkitzen ari zen. Berez, orain forma abstraktuak, trazu indartsuak eta kolore biziak maite baditu ere, garai honetan Marta Cardenasek figurazioa lantzen zuen eta joera xumeak eta sinpleak gustukoak zituen bai formekiko, bai koloreekiko, bai konposizioarekiko. Vicente Ameztoy, Andres Nagel, Ramón Zuriarrain edo Jose Luis LLanosen belaunaldiakoa, beraiek bezala, garai honetan bere artelanak ukitu misterioso eta fantastikoa bazuten ere, ez ziren beste artistetan bezain nabariak. Hala ere, garairako Marta Cardenasek kezka garaikidetan murgilduta zebilen artelan interesgarriak sortuz.
- 1971. urtea. IV. edizioa. **Carlos Bizcarrondo** (Madril, 1935): Carlos Bizcarrondok betidanik paisaiak margotzea izan du gustukoa, paisaia xume eta sinpleak, eraikinekin baina hauek ere

⁴⁴ Lanaren zehar aipatu dugun bezala, ikerketa hau burutzeko orduan aurkitu dugun arazo larriena informazio falta izan da. Ondorioz, memorialean saritutako artisten datuak bilatzerakoan gabezi hau oso adierazgarria izan da; nahiz eta iturri desberdinak kontsultatu —Artelekuko Dokumentazio Zentrua, Arteder-Bilboko Arte Ederretako Museoko Datu Basea, Mario Angel Marrodanen euskal margolarien hiztegia, edo beste liburu batzuk bibliografiari eskainitako eranskinean aipatzen direnak— memorialean helduen sari nagusia lortu zuten zenbait artisten oinarrizko datuak ezin izan ditugu lortu. Kasu batzutan aipamen laburren bat aurkitu baditugu ere, beste zenbait kasutan ez dugu datu zehatzarik lortu.

⁴⁵ Artista bakoitzaren ibilbidea aztertzeke orduan, eta zehazki, saria jaso zuten artelanek artista bakoitzaren garapenean zein momentuetan kokatzen zen erabakitzerakoan, aipatu beharra dago 30 artelan sarituetatik soilik zuzenean 12 artelan ikusteko aukera izan dugula; beste lau argazkien bitartez aztertu ditugu eta, ondorioz, beste 14tan, artelanik gabe, artista bakoitzaren ibilbidea aztertu behar izan dugu eta urtearen arabera, eta garai horretako beste artelanekin alderatuz, artista bakoitzaren ezaugarriak ondorioztatu.



oso modu soilean eginak. Kolorearen aldetik orokorrean apalak eta nahiko ilunak erabili baditu ere, garai honetan oraindik apalagoak ziren egun erabiltzen dituenak baino, oraingo produkzioan argiagoak nabarmentzen baitira. Bere pintzelada eta trazua ere aldatzen joan dira, eta garai honetan errealitate hurbilagoa sentitzen bazen ere, egun gehiago urrundu da eta bere artelanak askeagoak dira. Javier Arocena, Jose Gracenea eta Alejandro Tapiarekin batera Ur Taldea sortzeaz gain, Carlos Bizcarrondok, bere lankideak bezala, garaiko lehiaketa garrantzitsuetan bere burua aurkezten zuen hainbat sari lortuz.

- 1972. urtea. V. edizioa. **Luis Astrain Anso** (Donostia, 1949): Luis Astrain Ansok bere ibilbide artistikoa ilustrazioa eta komikiaren inguruan garatu du, eta bigarren hezkuntzako marrazketa irakaslea izaten bere ogibidea izan du. Bere estiloa figuratiboa izan bada ere, figurazioari ukitu fantastikoak eranstea gustukoa izan du, komikia eta ilustrazioaren eraginez.
- 1973. urtea. VI. edizioa. **Antonio Mateo Real** (Luanco, 1927): Antonio Mateo Real Asturiasen jaio bazen ere, bere bizitzaren zati handiena Irunen egin du Porcelanas Bidasoarentzat lanean, enpresa honen lanak margotzen eta bertako dekorazioa zenbait urtetan zuzenduz. Bere artelanak figuratiboak izan dira eta errealitatearekin lotura handia izan dute, nabarmenduz detailetarako zaletasuna eta abildade esanguratsua, hain zailak diren detaileak egiteko orduan.
- 1974. urtea. VII. edizioa. **Jose Antonio Arreche**: Jose Antonio Arreche margolari lezoarrak helduen sari nagusia irabazteaz gain lezoarraren sari nagusia ere bestetan irabazi zuen eta bigarren mailako beste hainbat sari ere. Bere lanen izenburuak aztertuz, argi ikusten da garaiko margolari gehienak bezala errealismoa eta figurazio izan zituela gustukoak. Hamarkada honetan kartelak diseinatzen ere nabarmendu zen.
- 1975. urtea. VIII. edizioa. **Maria Lourdes Kalonje**: Maria Lourdes Kalonjek garai honetako artelanetan inpresionismoa, postinpresionismoa eta espresionismoaren ezaugarriak bildu eta kolore bizien bitartez gai herrikoiak lantzen zituen. Figurazioa ez badu baztertzen ere, bere lanak ere ez dute errealismoa guztiz maite eta, ondorioz, bere pertsonaiak atmosfera berezi baten murgiltzen ditu, garai honetako joera surrealistekin eta fantastikoekin ere lotura interesgarriak sortuz. Gaien aldetik ere, Euskal Herriko tradizioen berreskurapen nahia nabarmentzen da.
- 1976. eta 1978. urteak. IX. eta XI. edizioak. **Juan Azpeitia** (Donostia, 1955): nahiz eta Juan Azpeitia egun margolari joera abstraktukoa izan, garai honetan figurazioan murgilduta zegoen, eta gainera, detaile handiz eginiko errealismo baten alde apustua eginez. Hala ere, garai honetako bere koadroak errealitate oso urrunduak zeunden, eta jorratzen zituen gaiak aipatu dugun ukitu fantastikoa eta surrealistarekin bat egiten zuten, ukitu misterioso bat sortuz bere artelanen inguruan. Gaietan ere, Kalonjeren antzera, berezko euskal gaiak hizkuntza artistiko garaikidearekin uztartzen saiatzen zen, Euskal Herriko artista garaikide asko garai honetan proposatzen zuten bezala. Egun abstrakzioan murgilduta lan egiten du, artelanak guztiz desberdinak sortuz baina beste modu batean oso interesgarriak ere bai.
- 1977. urtea. X. edizioa. **Iñaki Arzak**: Iñaki Arzak artistak bere ibilbide profesionala ilustrazioari eta komikiari lotuta garatu du. Garai honetan margotzen zituen artelanak ondorioz, ilustrazioa eta komikiaren eragina dute, eta figurazioan eginak badaude ere, eta errealitate hurbil, garai honetan hain modan zegoen komiki fantastikoaren eragina jasoko dute bere lanek. egun bere lanak soiltasunaren eragina izan badute ere, garai honetan detaile handiko zaletasuna erakusten zuen.
- 1979. urtea. XII. edizioa. **Pablo Donezar** (Donostia, 1948): egun Pablo Donezarrek eskulturak eta instalakuntzak egiten baditu ere hizkuntza kontzeptual garaikideen inguruan, eta bereziki material desberdinen garapenean nabarmenduz, garai honetan pinturan jarduten zuen, pintura figuratiboa landuz gainera, baina aurrerakoia eta ausarta garairako. Ondorioz, hirurogeita hamar. hamarkadaren bukaeran Pablo Donezarrek errealitatea abiapuntu bazuen ere, bere garai honetako artelanetan errealitateko elementuak aitzakia bat besterik ez ziren beste kontzeptuak eta ideiak garatzeko, bereziki espazioaren inguruan, eta gizakiak sortzen dituen harremanak berarekin.



- 1980. eta 1984. urteak. XIII. eta XVII. edizioak. **Luis Marzalo**: Luis Marzaloren lana garai honetan Elias Salaverria Memorialean irabazle suertatu ziren beste hainbat margolarien artelanekin batera —Luis Astrain Anso, Juan Azpeitia, Iñaki Arzak—, harremana zuzena gordetzen du. Egun, bere pintura figuratiboa izaten jarraitzen badu ere, orain gai xumeak eta sinpleak gustukoak ditu bai konposizioan bai gaiaren aldetik. Baina bi sari nagusiak irabazi zituen urte hauetan Luis Marzaloren lanak askoz konplexuagoak ziren zentzu guztietan; tamaina handiak jorratuz eta detaileekiko joera nabarmena garatuz, garai honetako bere lanak ukitu fantastikoa eta surrealista oso gustukoa zuten, eta Juan Azpeitiarekin gertatzen den bezala, Vicente Ameztoyek egiten zituen lanak gogora ekartzen dizkigute, bertan tradizioa eta joera garaikideak uztartzen saiatzen baitzen.
- 1981. urtea. XIV. edizioa. Edizio honen emaitzak ez ditugu aurkitu.
- 1982. urtea. XV. edizioa. **Marga Hernando** (Donostia, 1950): Marga Hernandok garai honetan figurazioa ere jorratzen zuen, baina bere kasuan errealitatearekin lotura zuzenagoa sortuz. Teknika handiko margolaria, bere artelanak garai honetan nabarmentzen ziren detailearekiko zuten joeragatik eta aurreko urtetan jorratu gabe zeunden gai diferenteak planteatzeagatik, bere hausnarketatik lortutako emaitzak jarraituz.
- 1983. urtea. XVI. edizioa. Helduen sari nagusia eman gabe geratu zen.
- 1987. urtea. XVIII. edizioa. **Angel Uranga** (Zarautz, 1961): garai honetan Angel Urangak —Angel Gonzalez-Andres Uranga bezala ezaguna— egun egiten duen pinturarekin harremana ez duen pintura jorratzen zuen. Azken urtetan ezaguna egin bada ere bere artelanak espresiboak direlako eta hasierako jarrera figuratiboa joera abstraktuekin nahasten dituelako, garai honetan Uranga oraindik gehienbat figurazio hutsean murgilduta zegoen, Ur Taldeko kideen eta Bidasoako Eskolako beste zenbaiten estiloak eta ezaugarriak uztartuz; hau da, gai arruntak inpresionismoaren estiloarekin baina espresionismoaren teknikarekin jorratuak, eta teknika bikainarekin amaituak.
- 1988. urtea. XIX. edizioa. **Mikel Bergara** (Irun, 1965): tamalez ez dakigu Mikel Bergarak helduen sari nagusia lortu zuen artelana nolakoa zen, garai honetan pintura figuratiboa baztertu eta abstraktuan murgiltzen ari baitzen. Egun, pintura abstraktuaz gain beste adierazpen artistikoak eta hizkuntza desberdinak jorratu baditu ere, garai honetan Mikel Bergarak figurazioa lantzen zuen baina errealitatearekin loturak sortu gabe. Beste artelan batzuetan ikusteko aukera izan dugun arabera, gehienetan elementu formal bat abiapuntutzat hartuta —aulki bat, adibidez—, artelanean forma eta koloreen nahasketaren inguruko hausnarketa garatzen zuen, artelan pertsonalak sortuz, alde batetik oso formalak, baina beste aldetik hausnarketak baztertu gabe.
- 1989. urtea, XX. edizioa. **Jesus Maria Corman** (Donostia, 1966): Jesus Maria Corman bere ibilbidearen zehar beti nabarmendu bada ere egin dituen aldaketengatik eta jorratu dituen adierazpen eta gai desberdinengatik, bestela ere, komunezko ezaugarri finkoak eta sendoak mantentzeko gai izanda. Horrela, garai honetan artelanen izaera fisikoaz kezkatuta bazegoen ere eta artelanaren formetan, koloreetan eta trazuan hori nabarmentzen da, bestetik Jesus Maria Cormanen artelanetan nahiz eta artelana abstraktua izan —irabazle suertatu zen artelanean bezala—, gaiak, esanahiak beti garrantzia du. Kasu honetan, jarraitu beharreko marra horrek zalantza gabe hausnarketa asko sortzeko gaitasuna du, ikusi baino artelana begiratzeko behar dugun denbora hartzen badugu. Egun joera eta hizkuntzak kontzeptualagoak jorratzen baditu ere, bere kezka nagusiak gizakiaren hausnarketen inguruan hasierako berak izaten jarraitzen dute, eta ondorioz, Elias Salaverria Memorialean helduen sari nagusia jaso zutenen artean Jesus Maria Corman da ibilbide eta garapen sendo eta interesgarrienetakoa aurrera eman ahal izan duen artista.
- 1990. urtea. XXI. edizioa. **Fernando Arenaza** (Bergara, 1952): Fernando Arenazaren artelanak espresatzeko eta komunikatzeko duten gaitasunagatik nabarmendu dira beti. Garai honetako bere artelanak, gainera, testuinguru politikoarekin lotura estua izaten zuten, eta ondorioz, formak espresiboak izateaz gain erabiltzen zuen teknika ere oso adierazkorra zen. “Beste bostgarren mendeurrena II” artelanean Amerikaren konkista espainolen aldetik gogor



kritikatzen ari da figurazioa eta abstrakzioa nahasten dituen artelan baten bitartez. Bere ibilbidean Fernando Arenazak bide beretik jarraitu du, nahiz eta estiloan eta teknikaren aldetik zenbait aldaketak sumatu esparru askeago baten bila.

- 1991. urtea. XXII. edizioa. **Jesus Javier Unzu**: Jesus Javier Unzu margolari nafarrak garai honetan figurazioaren aldeko apustua mantentzen bazuen ere, bere margolanetan arte garaikidearen korrante berrien eraginak antzematen dira, bai elementu formalekiko bai eduki kontzeptualekiko.
- 1992. urtea. XXIII. edizioa. **Fernando Mikelarena** (Legasa, 1960): Fernando Mikelarenak egun bereziki eskultura jorratzen badu ere eta gainera hizkuntza abstraktua erabiliz, garai honetan pinturan aritzen zen. Garai honetako bere artelanetan, figurazioaren arrastorik geratzen bazen ere, bere apustua argia zen hizkuntza berrien alde, eta ondorioz, joera garaikideen eragina nabarmena zen ordurako.
- 1993. urtea. XXIV. edizioa. **Iñaki Zabala**: aurreko urteetako irabazleak bezala, Iñaki Zabalak egun artelan abstraktuak egiten baditu ere, garai honetan oraindik figurazioa jorratzen zuen baina errealtatetik urrun, bai formarekiko bai edukiekiko. Garai honetako bere artelanak erabiltzen dituzten erreferentzia literarioak nahiko adierazgarriak dira zentzu horretan, nahiz eta umoreak ere garrantzitsua izan bere planteamenduetan.
- 1994. urtea. XXV. edizioa. **Jose Maria Perea**: Jose Maria Perek adierazpen abstraktuak ditu gustukoak, abstrakzio aske eta adierazkorra, printzipioz araurik gabekoa baina bere estiloa eta hizkuntza artistikoak bigarren begiradak ere eskatzen dituenetako da. Gainera, nabarmendu beharreko beste ezaugarrietako bat garai honetan gustukoak zituen formatuak dira, txikiak, hurbilekoak baina adierazgarriak.
- 1995. urtea. XXVI. edizioa. **Oscar Barreras**: Oscar Barrerasen artelan saridunak garai honetako aniztasuna oso ongi islatzen du. Hizkuntza abstraktuak eta figuratiboak nahastuz, kolore argiak eta biziak zuri-beltzeko irudiekin —mastaben irudiak—, Oscar Barrerarek, bere belaunaldiko margolari gehienak bezala errealtatetik urruntzen da eta eduki kontzeptualetara jotzen du, irudimena eta filosofiari tarte handia eskainiz.
- 1996. urtea. XXVII. edizioa. **Iñaki Gracenea** (Hondarribia, 1972): Iñaki Graceneak egun pintura jorratzen jarraitzen badu ere, bere lan abstraktuak gero eta kontzeptualagoak dira eta adierazpen artistiko berriekin eta teknologi berrien erabilpenarekin uztartzen ari da. Garai honetan bere pinturan oraindik figuratibismoaren eta errealtatearen kutsua sumatzen bada ere, bai artelan sarituaren izenburuan bai antzematen diren formetan eta koloretan, argi dago urruntzen hasia dela abiapuntu honetatik, eta konposizioan eta pintzeladan antzematen direla geroago Iñaki Graceneak hartuko duen ibilbidea eta garapena arrakasta handiz.
- 1997. urtea. XXVIII. edizioa. **Judas Arrieta** (Hondarribia, 1971): Judas Arrietaren artelanen ezaugarri konstante bat izan da ilustrazioa eta komikiaren aldeko zaletasuna, eta zehazki, “manga” izeneko komiki japoniarrekiko. Egun, bere lanak, guztiz murgilduta badaude ere mundu bitxi honetan, Elias Salaverria Memoriala irabazi zuen unean oraindik pintura berarekiko interesa adierazten zuen eta bere kezka kontzeptualak ere beste esparru batzuetara zabaltzen ziren artelan sarituaren izenburuak erakusten duen bezala. Artelanaren izenburuak urte horretan hil zen artista alemaniarri eginiko omenaldi bat da, artista berezi bat, bera bezala aniztasuna eta nahasketa gustukoak baitzuten.
- 1998. urtea. XXIX. edizioa. **Gorka Eizagirre** (Donostia, 1971): Gorka Eizagirreraren artelana saritua artista gipuzkoarraren ibilbide eta garapena artistikoan lana bitxia da, lan hori margotu bezain laster pintura utzi eta argazkigintzari heldu baitzion. Bere argazki lanetan egun ikusten den bezala, pintura ere jorratzen zuenean adierazpen kontzeptualak eta kutsu minimalistaz ukituak gustukoak zituen, galderak bilatuz baina erantzunak ez aurkituz pinturaren helburuen inguruan. Ondorioz, nahiz eta adierazpen artistikoaz aldatu, argi dago gaur egun jorratzen dituen kezka eta gaia asko artelan honetan islatuta daudela.



- 1999. urtea. XXX. edizioa. **Iñaki Rodriguez** (Donostia, 1972): Iñaki Rodriguezek, Gorka Eizagirre bezala, egun argazkigintza eta instalakuntzak gustukoagoak baditu ere, garai honetan pinturan aritzen zen, eta Gorka Eizagirre ez bezala, aria jaso ondoren oraindik beste urte batzuk horrela jarraitu zuen. Bere lanak ere kutsu kontzeptuala nabarmen jorratzen dute, baina beste erreferentzi mota desberdinekin uztartuz pop artea bezala, argazkigintza bera eta, orokorrean, kultura “herrikoia” deituko genuena. Bere artelan sarituak guzti hori laburbiltzen du, eta beste erreferentzi gehiago ere proposatu, hirurogeita hamar. hamarkadako kartelgintza bezala edo hamarkada horretako zenbait filma.
- 2000. urtea. XXXI. edizioa. **May Vazquez**: May Vazquezen lana nahiko berezia gertatzen da Elias Salaverriaren Memorialaren amaieran kokatuta. Kolore argiz eta biziz egina, artelanean emakume ezezagun bat ikusten da biolina bat ezkerreko eskuan duela. Artelan figuratiboa eta kutsu errealistako izanik, pintzelada eta bereziki aukeratutako kolore gorriak oso adierazkorak eta beroak suertatzen dira, lan espresiboa osatuz. Artelana zuzenean galderak helaraziko balituzke bezala sentitzen da. Memorialaren azken lana izateko, egia esan, nahiko misterioitsua suertatzen da

Atal honekin amaitzeko, datu bitxi bat baina esanguratsua aipatu nahi dugu. Sarituak izan ziren 28 artistetatik —guztira 31 edizio ospatu baziren ere, 1981eko irabazleen zerrendarik ez dugu aurkitu, eta bi artistak helduen sari nagusia bi urtetan irabazi zuten—, bakarrik 19 artisten jaiotze datak lortu ahal izan ditugu, beste bederatzienak ez⁴⁶. Hala ere, oraindik bitxiagoa da, datu honekin lotuta nabarmendu dezakegun ondorioetako bat, hots, artistek zenbateko adinarekin lortu zuten sari nagusia irabaztea. Beharrezko eragiketak egin ezker, ohartuko gara 19 artistatik 10 artistak 30 urte baino gutxiagorekin lortu zutela sari nagusia⁴⁷, beste zortzik 30 eta 40 urte arteko adinean⁴⁸, eta azkenik, artista bakar bat izan da 40 urte baino gehiagorekin sari nagusia lortu zuena⁴⁹. Datu honekin ondorioztatu dezakeguna zera da, Elias Salaverria Memorialak, bereziki, artista gazteen lana bultzatzea lortu zuela, adin batean honelako laguntzak ezinbestekoak direnean.

⁴⁶ Lortu ez ditugun artisten jaiotze data zerrenda honako hau da: Jose Antonio Arreche, Maria Lourdes Kalonje, Iñaki Arzak, Luis Marzalo, Jesus Javier Unzu, Iñaki Zabala, Jose Maria Perea, Oscar Barreras eta May Vazquez.

⁴⁷ 30 urte baino gutxiagorekin Elias Salaverria Memorialean helduen sari nagusien artistak eta adinak honako hauek dira: 1969an Tomas Hernandez Mendizabalek, 29 urteekin; 1972an Luis Astrain Ansok, 23 urteekin; Juan Azpeitiak, 1976an lehen aldiz 21 urteekin eta bigarrenengoan 1978an 23 urteekin; 1987an Angel Urangak, 26 urteekin; 1988an Mikel Bergarak, 23 urteekin; 1989an Jesus Maria Cormanek 23 urteekin; 1996an Iñaki Graceneak, 24 urteekin; 1997an Judas Arrietak, 26 urteekin; 1998an Gorka Eizagirrek, 27 urteekin; eta 1999an Iñaki Rodriguezek, 28 urteekin.

⁴⁸ 30 eta 40 urte artean helduen sari nagusia lortu zuten artistak eta beraien adina honako hauek dira: 1968an Alejandro Tapiak, 38 urteekin; 1970an Marta Cardenasek 30 urteekin; 1971ean Carlos Bizcarrondok, 36 urteekin; 1979an Pablo Donezarrek, 31 urteekin; 1982an Marga Hernandok, 32 urteekin; 1990ean Fernando Arenazak, 38 urteekin; eta 1992an Fernando Mikelarenak, 32 urteekin.

⁴⁹ 40 urte baino gehiagorekin sari nagusia lortu zuen artista 1973an Antonio Mateo Real izan zen, 46 urteekin.



7. MEMORIALAREN SARITUTAKO LANAK: AURKITUTAKO LANEN KATALOGAZIOA

Ikerketa honen azken atalean lanen katalogazioa egin dugu. Horretarako, hasieratik aipatu beharra dugu, katalogazio lanak burutzeko orduan kontutan hartu dugun lehen irizpidea izan dela Lezo herrian bakarrik dauden artelanak kontutan hartzea. Hau da, ez dugu saria irabazi zuten artista guztiengana jo, baizik eta Lezo herrian kokatzen diren artelanetara mugatu gara; jakin badakigu zenbait artista saria jaso zuten artelana gordetzen dutela⁵⁰, baina artista guztiekin helburu hori lortzea ezinezkoa zenez, horregatik mugatu gara Lezo herrian dauden artelanetara, eta zehazki, Lezoko Udalak jabetzan gordeta dituenetara. Hala ere, ikerketaren aurreko ataletan aipatu dugun bezala, artelanen jabetzaren inguruan kontutan hartu beharreko afera bat gertatzen da, hots, urte batzuetan sari nagusiaren irabazleak artelana etxera eramaten bazuen ere⁵¹, beste batzutan memorialaren antolatzaileak —aurrena Allerru elkarteak, eta gero Lezoko Udala— artelanekin geratzen ziren⁵². erabaki honen ondorioz, guztira 30 lan sarituetatik 12 aurkitu dira guztiak udal eraikinetan⁵³, eta besteen kokalekua aurkitzen saiatu bagara ere, ez dugu lortu⁵⁴.

Horregatik, ikerketa lanekin amaitzeko, aurkitu diren lanen katalogazioa egingo dugu fitxa eredu zehatz bat jarraituz, honako azpi atalez osatuta artelana sarituarekiko: urtea, edizioa, izenburua, artista, neurriak, euskarria, teknika, deskribapena, kokapena eta egoera⁵⁵.

- 1go artelana: **“El carnaval de Lanz”**
 - Urtea: 1975
 - Edizioa: VIII
 - Izenburua: “El carnaval de Lanz”
 - Artista: Maria Lourdes Kalonje
 - Neurriak: 58x68 zm.
 - Euskarria: mihisea
 - Teknika: olio
 - Deskribapena: Lanzeko (Nafarroa) inauterien eszena bat ikusten da, pertsonaia eta kolore askorekin eta biziarekin; lehen planoan inauteriko pertsonaia daude eta bigarrean etxeak
 - Kokapena: Udaletxea, lehen solairua

- 2. artelana: **“Premonición”**
 - Urtea: 1978

⁵⁰ Fernando Mikelarena adibidez.

⁵¹ Artista irabazleak artelan saritua etxera eramateko aukera izango zuten, ziurrenik, lehen aipatu dugun bezala, parte hartze handiago bat bilatzeko asmotan antolatzaileen aldetik. Egoera hau bi alditan eman zen, aurrena 1968tik 1974ra, eta geroago, 1991tik 1993ra. Ondorioz, 10 artelan sarituak izango liriteke artisten egileen jabetzapean geratu zirenak, zehazki, honako artista hauen lanak: Alejandro Tapia, Tomas Hernandez Mendizábal, Marta Cardenas, Carlos Bizcarrondo, Luis Astrain Anso, Antonio Mateo Real, Jose Antonio Arreche, Jesus Javier Unzu, Fernando Mikelarena eta Iñaki Zabala..

⁵² Printzipioz, antolatzaileak eskuratu zituzten lanak 20 izan ziren, eta horietatik 12 udal eraikinetan aurkitu badira ere, zortzi ez dira inon agertu; azaldu ez diren artelanak honako artista hauek eginikoak dira: Juan Azpeitia, Iñaki Arzak, Pablo Donezar, Luis Marzalo —bi artelan—, Marga Hernando eta Mikel Bergara.

⁵³ Lezoko Udal eraikinetan Elias Salaverria Memorialean irabazi zuten artelanez gain beste artelan batzuk ere aurkitu dira; hauen artean nabarmendu, zehazki, memorialarekin harremanetan daude beste bi lan: Luis Marzaloren “Renunciar anticipadamente a la esperanza”, 1979ko lana —bigarren saria lortu zuen—, eta Javier Sagarzazuren lan bat, izenburu eta data gabekoa —Javier Sagarzazuk bigarren saria lortu zuen memorialean 1974, 1976 eta 1978an—, eta gero, bereziki Udaletxean beste artelan asko ere aurkitu dira baina guztiak Lezon 1995etik aurrera antolatzen zen Jendaurreko lehiaketakoak dira, bertan sariak lortu zituzten artelanak.

⁵⁴ Lezoko Udalaren, eta ondorioz, ikerketa hau burutu duten egileena ere, asmoa izan da galdutako artelanak ez eskuratu Udalaren jabetzarako, baizik soilik bakoitzaren kokalekua zehaztu artelan horien egoera jasoz eta deskribatuz. Ikerketa honen egileek asmo hau burutzen saiatu badira ere —prentsan deialdia zabalduz, adibidez, *Hitza* egunkarian— ez dute emaitzarik lortu.

